# **Turismoak gatazka** historikoko **lekuetan bakea** sustatzeko duen ahalmena balioan jarri

## Iraganari buruzko gogoeta eta etorkizunerako inspirazio-iturria

Flandriako Gobernua

Eusko Jaurlaritza

Ipar Irlandako Gobernua

Euskal Herriko Unibertsitatea

Ulsterko Unibertsitatea

Gaztelania eta euskarako berrikuspena eta egokitzapena Maider Marañaren eskutik (EHUko Kultur Paisaiak eta Ondarea UNESCO Katedra)

**2020ko apirila**

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren **enkarguz egina**

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Aurkibidea

Aurkezpena. 4

**1.** Sarrera. 5

**2.** Testuinguru orokorra: turismoa eta bakegintza. 7

2.1. “Bakearen” finkapena gatazkaren ostean. 7

2.2. Turismoa eta bakearen finkapena. 7

2.3. Gatazka-lekuak memoria- eta ondare-leku gisa. 8

2.4. Turismo-interesa gatazka-lekuetan. 9

**3.** Ikerketa-prozesua. 11

3.1. Lekuen identifikazioa. 11

3.2. Analisi-prozesua. 14

**4.** Gatazka-lekuetako turismoaren eta bakearen inguruko eztabaidak eta erronkak: ikuspegi orokorra. 16

4.1. Historia traumatikoak merkaturatzea. 16

4.2. Gerra goraipatzea. 17

4.3. Historia ideologikoak eta orainaldiaren legitimazioa. 18

4.4. Garapen neurrigabea eta ondarearen kontserbazioa. 18

4.5. Biktima-izaerari buruzko politika eztabaidagarriak. 19

4.6. Finantzaketa-erronkak. 20

**5.** Ekintza transferigarriak. 21

5.1. Gatazkak izan dituzten lekuetako turismoa bakearen finkapena sustatzeko iturri gisa. 21

5.2. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia eta garapen iraunkorra. 21

5.3. Diskurtsoak aurkezteko lana. 22

5.4. Antzeko lekuen sarea: leku enblematikoen zeregina. 23

5.5. Lekuen kontserbazioa eta bisitaren esperientzia. 24

5.6. Iraganeko gatazkak ukitutako pertsonen eta biktimen partaidetza eta toki-komunitateen zeregina. 24

5.7. Turismo iraunkorra. 25

5.8. Bisitarien eta turisten zeregina. 25

5.9. Kontzientziazioa, kultura-jarduerak eta komunikazioa. 26

5.10. Eragileen arteko lankidetza, sektore publikoa, sektore pribatua eta nazioarteko komunitatea barne. 26

**6.** Printzipio etikoen proposamena. 27

**Eranskinak I.** Erreferentziak eta bibliografia. 29

**Eranskinak II.** Proiektuko partaideak eta ikertzaileak. 34

**Eranskinak III.** Esker onak. 35

Gaur aurkezten dugun testu hau “Turismoak gatazka historikoko lekuetan bakea sustatzeko duen ahalmena balioan jarri: iraganari buruzko gogoeta eta etorkizunerako inspirazio-iturria” izeneko ikerketa-proposamenaren ondorioz argitaratu zen dokumentuaren itzulpena eta berrikuspena da. Ikerketa Turismoaren Mundu Erakundeak sustatua izan zen eta Flandriako, Eusko Jaurlaritza eta Ipar Irlandako gobernuek parte hartu zuten, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV / EHU) eta Ulsterreko Unibertsitatearekin batera.

Ikerketa prozesu osoa 2017. urtean zehar garatu zen, beraz, edizio berrikusi honetan, jatorrizko argitalpenaren testuetan aldaketa minimoak egin dira, proposamenaren osotasuna mantentzeko, eta akatsak zuzentzera edo bestelako gaiak eguneratzera mugatzen gara.

Era berean, jatorrizko argitalpenean 10 fitxa sartu ziren, ikerketaren esparruan aztertutako gatazka lekuetako bakoitzeko bat, informazio zehatza eta zabala emanez. Fitxa hauek ez dira edizio honetan sartu eta jatorrian ingelesez begira daitezke, informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero.

Aurtengo edizioa, beraz, turismoa eta gatazka osteko lekuen arteko harremana aztertu eta ikertutako guneak labur deskribatu ondoren, lekuok publikoari irekitzearen inguruko eztabaidak eta erronkak biltzen dituzten ikerketa-ataletara bideratu nahi izan da bereziki. Edizio honen azken helburua da iraganean giza eskubideen urraketekin lotutako espazioak memoria bihurtzeko prozesu honetan bideak eraikitzeko balio duten praktika onak bilatu eta identifikatzea.

Maider Maraña

EHUko Kultur Paisaiak eta Ondarea UNESCO Katedra

# **1.** Sarrera

"Turismoak gatazka historikoko lekuetan bakea sustatzeko duen ahalmena balioan jarri: iraganari buruzko gogoeta eta etorkizunerako inspirazio-iturria" proiektuak, Munduko Turismo Erakundeak (MTE) eta Flandriako Gobernuak zuzenduta, helburu hauek ezarri zituen: bakea finkatzen eta mantentzen laguntzea eta, aldi berean, garapen iraunkorrerako ekarpena egitea, ondarearen eta turismo etikoaren bidez.

Mila milioi pertsonak baino gehiagok zeharkatzen dituzte nazioarteko mugak urtero. Beraz, turismoa gure garaiko jarduera sozioekonomiko nagusietako bat bihurtu da; izan ere, ia nazio guztietako eta planetako edozein bazterretako pertsonek parte hartzen dute horretan, anfitrioi zein bezero gisa. Ikus-mugak zabaltzen dituen esperientzia hezigarri gisa duen zeregin eztabaidaezinari esker, eraldaketa-indar boteretsua bihur daiteke, aurreiritziak, mesfidantza eta areriotasuna murrizteko eta mundu harmoniatsuagoa eta baketsuagoa sortzeko ekarpen nabarmena egiteko. Gainera, turismoak komunitateei munduan duten tokia, beren kulturak, tradizioak eta ingurunea balioesten lagundu ahal die. Horrek toki-komunitateen artean autoestimua sortzen laguntzen du, eta hori bereziki garrantzitsua da edozein motatako gatazka pairatu dutenetan.

Beste ekimen batzuen artean, Lehen Mundu Gerraren mendeurrenaren aribideko oroipenak iraganari buruz gogoeta egiteko eta etorkizunerako ondorioak ateratzeko aukera eman du, bakearen kultura aldezteko garrantziaren inguruan.

"Turismoa eta bakea" 1980ko hamarkadatik azaleratzen ari den jarduketa- eta ikerketa-esparrua bihurtu da, baina haren ideia nagusietako asko ez dira berriak; izan ere, turismoa aspalditik jotzen da bakea eta elkarren ulermena sustatzeko modutzat. Ez da argi ulertzen harreman hori zehazki zer-nolakoa den eta ikerketa enpirikoa egin behar da zehatz-mehatz jakiteko nola susta dezakeen turismoak bakea (Mouffakir eta Kelly, 2010) eta zein eragin izan dezakeen turismoak bake-prozesuetan (Wohlmuther, Wintersteiner, 2013).

Beraz, proiektu honek gai honetan jartzen du arreta: turismo etikoaren eta ondarearen konbinazioak nola ematen dituen nazioarteko ulermena handitzeko eta areagotzeko eta belaunaldi gazteek eta helduek gerrari eta bakeari buruz duten pentsamoldea aldatzeko baliabideak.

Turismoak bakearen agente gisa duen alderdi eraldatzailea ikertu da, gatazka izan duten lekuetako jardunbide egokien analisian arreta jarrita. Mundu osoko kasu esanguratsuetatik ateratako irakaspenak planeta osoan zabaldu behar dira beste herrialde batzuek jardunbide egokiak eta esperientzia arrakastatsuak parteka ditzaten turismoak gizarte harmoniatsuagoak eta baketsuagoak sortzeko duen botere eraldatzaileaz baliatzerakoan.

Proiektuaren helburu zehatzak mundu osoko lekuak, non gatazka historiko batekin zerikusia duen espazio bat bisitatu ahal den, aztertzean ardaztu dira. Azken helburua gatazka izan duten zenbait tokitako lekualda daitezkeen jarduketak, nazioarteko beste leku eta kokapen batzuetarako interesgarriak eta erabilgarriak izan litezkeenak, identifikatzea zen, baita gatazka izan duten lekuetako turismoari buruzko jarraibide etiko batzuk, ikuspuntu eragile batetik garrantzitsuak izan litezkeenak, prestatzea ere.

Era berean, gatazka izan duten lekuen bisitan bakearen finkapena eta giza eskubideak sustatzeko bide luze baten lehen pausotzat jotzen da proiektua. Horri dagokionez, emaitzak askotariko arloetan erabiltzea ere nahi da, hala nola politikei buruzko gogoetetan edo eragile eta erakundeen arauen ezarpenean.

Gatazka izan duten lekuetako turismoari buruz proposatu diren printzipio etikoak interesgarriak izan litezke eta etorkizunean berariazko agenteentzat eta sektore interesatuentzat (adibidez, sektore publikoko eta pribatuko bisita-zentroetako arduradunentzat, bidaia-agentzia handizkarientzat eta gainerako zerbitzu-hornitzaileentzat, komunitate anfitrioientzat eta bisitarientzat) egokitu litezke, gatazka historikoko lekuetarako bisita-esperientzien multzoa sortzeko asmoz.

Ildo berean, identifikatutako ekintza transferagarriek politikei buruzko gomendioak susta ditzakete; gomendio horiek beren lurraldean gatazka historikoko lekuak eta kultura-paisaiak kudeatzendituzten agintari publikoek erabil ditzakete eta gaikuntza eta inspirazioa ekar diezazkiekete, bakeari buruz sentikorra den esparru politiko publikoa gara dezaten, turismo etikoaren eta ondarearen zein beste arlo politiko batzuen (esaterako, kulturaren, komunikabideen, zientzia-ikerketaren eta hezkuntzaren) arteko harremanak ezartzen dituena.

Proiektuaren faseetan, elkarrizketetan eta landa-bisitetan, proiektuak aztertutako lekuetan bakearen finkapena sustatzerakoan turismoak duen zereginari buruzko eztabaidak eta kontzientziazioa ere piztu ditu bisita-zentroetako arduradunen eta bestelako agenteen artean.

Azkenik, proiektua jarraibide etikoek eta bakeari buruz sentikorra den esparru politiko publikoak bakearen finkapena areagotzeko eta turismoa garatzeko izan dezaketen balioaren eta egin dezaketen ekarpenaren komunikazio irmoranzko urrats bat izan zen.

Horretarako, Finantzaketako Kideen Foro bat (Flandriako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Ipar Irlandako Gobernua eta Ulsterko Unibertsitatea) eta Ikerketa Partzuergo bat (Ulsterko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea) sortu ziren[1].

1 Informazio gehiago, II. eranskinean.

# **2.** Testuinguru orokorra: turismoa eta bakegintza. Bibliografiaren berrikuspena

“Tolerantzia-faltari aurre egiten diogu. Turismoak jendea batzen du.
Gogoa eta bihotza zabaltzen dizkigu”
(MTE, 2016).

## **2.1.** “Bakearen” finkapena gatazkaren ostean

Bakearen finkapenaren eta turismoaren arteko harremana arakatu baino lehen, garrantzitsua da zehaztea zeri esaten diogun “bake”. Bakea, beharbada, kontzeptu lausoa eta berez definitzen konplexua da. Askok esan duten moduan, (kulturako, egiturako, zuzeneko) biolentziarik ez egotea baino zerbait gehiago da (ikusi Galtung, 1969). Lana eskatzen duen prozesua da. Bakeak atzera eta aurrera egiten du denboran eta espazioan (McDowell eta Braniff, 2014) eta kopuru zehatzetan kuantifikatzen konplexua da halabeharrez. Ez da nahitaez estatikoa eta, Brickhill-ek (2015) adierazten duenez, gatazka baten alderdi bakoitzarentzat esanahi desberdinak izan ditzake. Pertsona bat baketzat jotzen duena oso gauza desberdina iruditu ahal zaio beste pertsona bati (Richmond, 2014). Ross-ek (2011), Koopman-ek (2017), Shimadak (2014) eta Williams-ek (2015) argudiatzen dutenez, bakea, gerra bezala, zenbait eskalatan, zenbait lekutan eta zenbait unetan egon daiteke presente.

Gatazkatik abiatutako trantsizioa prozesu zaila da argi eta garbi eta, askotan, neketsua ere bada borroka armatuan murgilduta dauden edo iragan bortitzetatik edo banaketa luzeko aldietatik azaleratzen ari diren gizarteentzat. Bakegintzaren eta bakearen finkapenaren eremuko bitartekarien dibertsitatea eta aniztasuna gorabehera, bakegintza-prozesua ez da nahitaez errazagoa egin denboraren poderioz. Gatazka batetik abiatutako trantsizioa itxaropenez eta promesez betetako prozesua da. Surkhe-k *et al.* (2000) iradokitzen dute bakegintzak “iraganeko eta orainaldiko” funtzio batzuk dituela, gatazkari amaiera eman ez ezik bizikidetzako etorkizun baketsu baten oinarriak ere ezarri behar baititu. Bakegintzaren eta bakearen finkapenaren itxaropen komuna da sozietatе zibilak prozeduran parte hartuko duela eta nolabaiteko bake iraunkorra egoteko ekarpena egingo duela. Hala ere, itxaropen hori, Steenkamp-ek (2011) iradokitzen duenez, zeregin ia zaputza da. Sisk-en aburuz, ez bakea ez gerra ez da “munduaren egoera naturala”. Hortaz, bake-prozesuek erronka handiei aurre egiten diete eta gutxitan izaten dira ebazpen amaigabea erdiesten duen banalerro argia.

Bakegintzaren eta bakearen finkapenaren erretorika gatazka “konpontzeko” nahian oinarritzen den arren, egiatan “eraldatzeko” konpromisoa da. Aurreko terminoak gatazkaren izaera aldatzen duten metodoak aipatzen ditu hitzez hitz, indarkeriatik beste baliabide batzuetarantz abiatuta (Lederach, 1997). Gatazka bortitzaren jarraitutasuna babesten duten harreman, interes eta diskurtsoak eraldatzen dituztenez, metodo horiek zenbait mailatan funtzionatzen dute, norbanakoarengandik estaturaino, eta gizarte-egituraren bidegabekeriari eta desberdintasunari oro har eragiten dien egiturazko aldaketa bat ekar dezakete (McDowell eta Braniff, 2014).

## **2.2.** Turismoa eta bakearen finkapena

Farmakiren arabera (2017, 528. or), turismoa “jokabide, sare eta egitura sozialetan sustraitutako” fenomenoa da. Turismoaren eta bakearen arteko harreman konplexua 1920ko hamarkadatik eztabaidatzen da. Wohmulther-ek eta Wintersteiner-ek (2014) adierazten duten moduan, turismoa bakearen alde egiteko balio lezakeelako ideia Gerra Handiaren osteko aldian sortu zen nagusiki. Hagan 1925ean egin zen Turismo Propagandarako Elkarte Ofizialen Nazioarteko Kongresuaren hasieran, jendeari elkarri ulertzen laguntzeko sustatu zen turismoa, irrikatutako bakea erdiesteko asmoz (*ibid.*). Orain eskuarki onartzen da turismoa bakearen bultzatzaile garrantzitsua dela gatazkatik abiatutako trantsizioa bizi duten gizarteetan. Horren oinarria “kontaktuaren hipotesia” da; hain zuzen, haren premisa da pertsonen arteko kontaktu handiago batek kulturaz haraindiko ulermena bultzatu eta areriotasunak murriztu ahal dituela. Hala ere, kontaktuaren hipo-

tesiak sen onari dei egiten dion arren, Salazar-ek (2006, 330. or.) zera adierazten du: “badirudi turismoaren bidezko bakegintzaren ideiak amets gozoetan eta sektoreko ordezkarien erretorikan oinarritzen direla teoria akademikoetan eta ikerketa enpiriko sakon batean baino gehiago”. Era berean, Mouffakir-ek eta Kelly-k (2010, xxv. or.) deitoratzen dute azterketa-eremua mugatua, “hipotetikoa eta iritzietan oinarritua” dela. Onartzen da analisi enpiriko zehatzagoa egin behar dela turismoaren eta bakearen arteko harreman zehatza ulertzeko (Wohlmulther eta Wintersteiner, 2014).

Bourdieuk (1984) asko idatzi du kontaktu-sareak ezartzeak kapital ekonomiko eta soziala indartzeko duen garrantziaz, kapital hori sarritan murrizten delako gatazkaren ondorengo aldian. Ildo horretan, turismoaren bidez sare globalak sustatzea funtsezko osagaia da, turistek kontinenteen arteko harremanak sortzen dituztelako eta etxera itzultzean ezagutza eta esperientziak partekatzen dituztelako. D’Amore-ren arabera (1998, 153. or.), turismoak “diplomazia ofiziosoaren” maila oinarrizkoenean funtzionatzen du, “herrialde bateko herritarren nortasunei, sinesmenei, ikuspegiei, kulturei eta politikei” buruzko informazioa zabalduz beste herrialde bateko herritarrengana. Eta jarraitzen du: “ondo asmatuta eta garatuta badago”, turismoak “arraza, kolore, erlijio eta garapen ekonomiko eta sozialaren fase desberdinetako pertsonak banatzen dituzten distantzia psikologiko eta kulturalak gainditzeko” gaitasuna dauka. Munduko Turismo Erakundeak (MTE) eta EBk aspalditik baieztatu dute turismoak, jokabideei eta gizarte-egiturei lotuta dagoenez gero, eginkizun ikaragarria betetzen duela bakea sustatzeko. Kelly-ren lanak (2012) turismoa bakegintzarekin gurutzatzen saia litekeen lau arlo zirriborratu zituen:

1. Taldeen arteko kontaktua.
2. Kontu etikoak (ingurumenarekiko eta giza eskubideekiko errespetua).
3. Turismoak globalizazioaren alderdi negatiboetan duen eragin positiboa (pobreziaren deuseztapena).
4. Hornitzaileen eta kontsumitzaileen arteko kontzientziazioa jokabide-kodeen, bakearen parkeen eta turismo-hezitzaileen bidez (hemen aipatuta: Wintersteiner eta Wohulther 2014, 44. or.).

*Handbook for Peace and Tourism* liburuan, Wintersteiner-ek eta Wohulter-ek (2014, 53. or.) “bakeari buruz sentikorra” den turismoaren ikuspegi baten alde egiten dute. Haien arabera, honetan ardaztu beharko luke:

1. Turismoa “bestearen” eta oro har alteritatearen esperientzia gisa kontzeptualizatzea. Horrela, pertsonen adimena irekiko litzateke, eta ikasiko lukete mundua ez dela bizi-eredu bakar bat eskaintzera mugatzen, zenbait baizik. Hori kontaktuaren hipotesiaren bertsio mugatua da eta kritikoki berrikusi beharko litzateke.
2. Elkarren arteko eta mugaz haraindiko turismoa txertatzea, beste aldeko diskurtsoetan arreta jartzeko eta, azkenik, haren aurkaritza zorrotza gainditzeko.
3 . Bakearen turismoa erabiltzea gerraren historiaz eta bakegile garrantzitsuen historiaz ikasteko.

## **2.3.** Gatazka-zonak memoria- eta ondare-leku gisa

Ia gizarte guztien historian gatazka, gerra, banaketa etniko, zapalketa edo bereizkeria sistemikoko gertakariak aurki daitezke. Iragan mingarri baten orbainek askotariko formak har ditzakete eta leku eta erakunde desberdin ugaritan irudikatuta daude (Williams eta Reives, 2008), bai hilketak, sarraskiak, genozidioak eta triskantzak gertatu ziren lekuetan, bai hilerrietan, espetxe zibil eta politikoetan eta gatazkaren objektuak eta pairatu dutenen lekukotzak, esperientziak eta diskurtsoak gordetzen dituzten museoetan. Leku horiek min pribatu, lokal eta nazionalaren adierazpen bihur daitezke, baita batasun-, nortasun- eta ondare-sinboloak ere. Ondarea oso prozesu politizatua izan daiteke, eztabaidaren menpe dago eta memoriaren eta nortasunaren eraikuntzari, berreraikuntzari eta dekonstrukzioari lotuta dago (Whelan, 2003). Barahona de Pinto *et al.*-en arabera (2001), memoria “boterea bereganatzeko borroka da eta etorkizuna erabakitzen du”. Beraz, botere gehien daukatenek gogoratzen diren eta, ondorioz, ahazten diren alderdietan eragina izan dezake, baita horiek agindu eta definitu ere. Iragana gogoratzea orainaren funtsezko atala da eta zenbait arrazoirengatik da garrantzitsua. Gure nortasun-senari halabeharrez lotuta egoteaz gain, ondarearen prozesuari datxekion elementua da, zeren eta “gure (oraingo) beharren eta irriken argitan” gogoratzen dugulako iragana (Walker, 1996, 51. or.). Memoriarik gabe, niaren, nortasunaren, kulturaren eta ondarearen zentzua galdu egiten da. Nortasunak balioetsiak eta gezurtatuak izaten dira, eta iraganaren alderdi bat bereganatzeak eta

lantzeak berezko kidetasun-, xede- eta leku-sentimendu bat indartzeko balio du (Lowenthal, 1985, 2. or.). Foote-k adierazten duenez, "garaiak aldatu egiten dira eta, aldatu ahala, pertsonek atzera begiratzen dute iraganerantz eta gertaerak eta ideiak berrinterpretatzen dituzte. Iraganeko gertaeretan ereduak, ordena eta koherentzia bilatzen dituzte, gizarte-, ekonomia- eta kultura-balio aldakorrei eusteko" (Foote, 1998, 28. or.). Longley-ren arabera (1994, 69. or.), funtsezkoa da iragana gogoratzea. Modu horretan, komunitateek "beraien erlijioa berritzen dute: hitzez hitz, lotzen dituena, banako makila desberdinak inguratzen dituen soka". Gizarteko norbanakoek, taldeek edo komunitateek iraganaren zenbait alderdi gogoratzeko joera dute, baina modu desberdinetan eta hautazko metodoei jarraituz egiteko joera daukate.

John Brewer-ek (2006), memoriak bakearen finkapenean duen zereginaz idaztean, iradokitzen du hiru helburu nagusi erdiesteko balio duela:

1. Gogoratzeak hasiera batean banaketak eragin zituzten iraganaren itxuraldaketak zuzentzen lagundu dezake.
2. Memoriaren ikuspegi pluralista batek, "beste" gizartearen memoriak txertatzen dituenak, aurrerapen kolektiboari lagundu ahal dio.
3. Arbuiatu edo formalki saihestu ziren memoriak berreskuratzeak batu egin dezake banatu beharrean.

Batzuetan, gatazkari buruzko diskurtsoak aurkeztea izugarri zaila izan daiteke sufrimendutik eta banaketatik azaleratzen diren gizarteetan. Gatazka-lekuak oso hunkigarriak izaten dira eta zama politiko handia edukitzen dute. Leku batzuetan, hildakoak edo zaurituak egon dira; beraz, galera eta mina aitortzeaz gain, leku horiek biktima-izaeraren inguruan aurrez aurre ipinitako errebindikazioak erakusten dituzte. Zenbait leku kulturalak dira eta historia eta ondarea nortasuna indartzeko erabiltzen dituzte.

Berez konplexua da jakitea nola barneratu historian ahalik eta modurik onenean, eta erronka horiek ez dira salbuespenezkoak. Batzuen arabera, gatazka-lekuak ondare-forma zaila dira. Ondare zail bati aurre egitea (ikusi Logan, 2007) egundoko zeregina izaten da, baina baditu aurrekariak. Grodach-ek (2001), antzinako estatu jugoslaviarretako gatazkaren oinordekotzaren zereginaz idaztean, iradokitzen du gerra-egintzak eta gatazkaren esperientziak garrantzi historiko edo kultural handia duten lekuen itxurari eta esanahiari eragin ez ezik esanahi eta garrantzidun leku berriak eraikitzeko gai ere badirela. Eguneroko lekuek, pertsonen bizitza gertatzen den lekuek, esanahi berri bat hartzen dute gatazkan, eraldatu ohi dira eta "esanahi sinboliko areagotua, balioa eta garrantzi emozionala" bereganatzen dituzte. Gainera, "ondare" gisa eboluzionatzen dute (McDowell, 2008, 68. or.). Eta, leku horietako asko zalantzarik gabe tokikoak diren arren eta gizarteetako banaketa etengabeaz hitz egin dezaketen arren, interesgarriak dira kanpoko jendearentzat, gatazkaren alderdi desberdinak arakatzeko gero eta erakarpen handiagoa sentitzen baitu. Ez ahazteko beharrean datza memoria-modu askoren koska. Jasota dauden memoriek, nolabait, gerraren izugarrikeriak eta haren ondorio suntsitzaileak gogorarazten dizkiete etorkizuneko belaunaldiei, ahatz ez ditzaten. Sufrimendu eta indarkeriako lekuetan gertatzen den ikasketa garrantzitsuak ikusita turismoak arlo horretan izan dezakeen rola balia liteke.

## **2.4.** Turismo-interesa gatazka-zonetan

Pertsonak beti interesatu dira gatazkarekin eta sufrimenduarekin zerikusia duten lekuez eta erakundeez. Seaton-en arabera (1996, 2010), mendeetan zehar gudu-zelaien eta antzeko lekuen aldeko interesa egon da[2]. Interes hori dibertsifikatu egin da turismo-sektoreak eboluzionatu ahala. Mendearen hasieran, Smith-ek (1998) iradoki zuen gatazkari eta gerrari lotutako lekuek hazkunde handieneko erakargarri turistikoa bihurtu zirela. Leku horiek, Stone-k eta Sharpley-k (2008) esaten dutenez, turismo-intereseko azpimultzoa dira heriotzari eta sufrimenduari lotutako leku ugarien, tanatoturismoak edo turismo ilunak ezaugarri dituenen, artean (ikusi Stone, 2013). Turismo-mota hori inguratzen duen diskurtsoa konplexua da eta ondore garrantzitsuak ditu bai turismo-sektorean bai bisitarien asmoei buruz daukagun pertzepzioan. Lennon-ek eta Foley-k (1996) "turismo iluna" adierazpena sortu zuten heriotzari eta sufrimenduari lotutako lekuak ekoizteko eta kontsumitzeko interesa deskribatzeko; Seaton-ek, ordea, "tanatoturismo" terminoa eman zuen pertsonek bizitza galdu zuten espazioen interesaz aritzeko. Beste batzuek adieraz-

2 Seaton, *War and Thanatourism*, 130-158 or.

pen hauek jaso dituzte: “dolu-turismoa” (O’Neill, 2002), ondare-esklabotzako turismoa (Dann eta Seaton, 2001), Holokaustoari lotutako lekuetan ardaztutako turismoa (Tonner, 2008) eta hondamendi- edo terrorismo-lekuak. Stone-k eta Sharpley-k (2008) iradokitzen dute “turismo ilunaren” espektro osoan motibazioak asko aldatzen direla, lilura morbosotik (Tarlow, 2007) nortasun- edo biziraupen-sentimendu batera, eta hezkuntza-xedeak ere badaudela.

Autore batzuen ustez, “turismo iluna” izena arazotsua da. Adibidez, Muzainik *et al.* (2007, hemen aipatuak: Sharpe eta Strange, 2008) esaten dute turismo ilunaren konnotazioek ikusizkoa eta esperientziazkoa lehenets ditzakete, zehaztasun historikoaren premia kontuan hartu beharrean. Lisle-k (2004), ordea, “turismo ilunaren” kontzeptuaren kontra egiten du, turistari “gogoeta egiteko edo konpromiso morala hartzeko gaitasun” oro ukatzen baitio. Iradokitzen du “turismo ilunaren” kontzeptua beharbada ez dela adierazpen erabilgarriena diskurtso zail edo zorrotzak dituzten lekuen marketina, merkaturatzea eta kontsumoa deskribatzeko. Halaber, beharbada ez du aintzat hartzen leku horiek turistei aukera eman ahal dietela beste batzuek adierazi dutena baino zeregin produktiboago bat betetzeko bakearen finkapenean. Esaten duenez, gatazkatik abiatutako trantsizioa bizi duten lekuetan, adibidez, Ipar Irlandan eta Kanbodian, turistek beren zeregin tradizionala, dauden ingurunea soilik xurgatzekoa, betetzea baino zerbait gehiago egin dezakete.

Lisle-k (2005) “turismo politikoa” adierazpenaren alde egiten du gatazka-lekuetan eta horien inguruan egon daitekeen turismo-mota deskribatzeko eta iradokitzen du turistei gero eta gehiago interesatzen zaiela gatazkaren dinamikari buruzko gauza gehiago ikastea. Gatazka-lekuen inguruko turismo-ekimenak ez lirateke mugatu behar uneren batean indarkeriari edo gerrari lotuta egon ahal izan den leku zehatz bat begiratzen duten turistengana. Aitzitik, gatazkari eta bakeari buruzko mezu esanguratsuak hedatzeko bide garrantzitsutzat jo beharko lirateke. Beraz, ekimen horiek turismo-modu tradizionalek baino zeregin aktiboagoak esleitzen dizkiete turistei, ikuspuntu politikotik. Stein-ek (1996), turistek gatazkaren eta bakearen finkapenaren eremuan betetzen duten zeregina analizatzean, adierazten du turistek gatazkan esku hartzeko gaitasuna dutela[3]. Clarke-ren arabera, turistak animatzen dira gatazkaren irakaspenak “beraiek egiaztatzera”, diskurtso horren baliozkotasuna moralki epaitzera eta beraiekin eramatera beste batzuekin partekatze aldera (hemen aipatua: McDowell, 2008). Sektoreko akademiko eta profesional batzuek adierazi dute gatazka-lekuetako ondarea garapenerako eta bakearen finkapenerako funtsezko osagaia izan daitekeela gatazka izan duten gizarteetan (ikusi Boyd, 2000, adibidez). Tunbridge-k eta Ashworth-ek (1996) baieztatzen dutenez, “ankerkeria ondare komertzializagarrienetako bat eta mezu politikoak edo sozialak helarazteko tresna boteretsuenetako bat [da]”. Horrela, diskurtsoa hedatu eta kanporantz eramaten da. Lisle-ren arabera, turistak ia bitartekariak dira eta batzuetan inoiz ez bezalako sarbidea dute bisitatzen duten lekuko beste pertsona batzuk sartu ezin diren lekuetara. Gatazkaren dinamika ezagutzen dute eta esperientziak etxera eramaten dituzte; horrela, gatazkaren diskurtsoak kanpora eraman eta hedatzen dituzte.

Turismoarentzat gatazkaren diskurtsoak ekoiztearen eta kontsumitzearen inguruko zenbait auzi etiko hartu behar dira kontuan. Gatazka-lekuen eta sinboloen inguruko negoziazioa merkataritza-, kultura-, politika- edo hezkuntza-xedeetarako egiteak galdera garrantzitsuak planteatzen ditu lekuetan beraien osotasunari buruz, diskurtsoak pluraltasuna aitor dezaten eta traumarekiko eta sufrimenduarekiko sentikorrak izan daitezen irudikatzeko moduari buruz eta eragozpenak edo aurkaritzak jorratzen eta analizatzen diren erari buruz.

3 Luna Stein, “Political Tourism in Palestine: Book Review”, hemen: http://www.stanford.edu/group/SHR/5- 1/text/lstein.html

# **3.** Ikerketa-prozesua

Aurreko kapituluetan aipatu den bezala, ikerketa-fasearen xedea zenbait tokitako lekualda daitezkeen jarduketak, nazioarteko beste leku eta kokapen batzuetarako interesgarriak eta erabilgarriak izan litezkeenak, identifikatzea izan da. Leku desberdinei buruzko azterlan horrek, bigarren fasean, turismoaren eta gatazka izan duten lekuetarako bisiten gaineko jarraibide etikoak garatzen lagunduko luke.

Horretarako, partzuergoko nazioarteko ikerketa-talde biek ikerketa-metodologia bat diseinatu zuten adierazitako eta adostutako helburuak erdiesteko, alegia:

- Turismoaren sustapenari eta gatazka izan duen leku baterako bisitei buruzko mundu osoko kasu nagusi eta enblematikoak identifikatzea.
- Lekuetan, tokian bertan, turismo-politiken eta -estrategien eduki kritikoa analizatzea, oraingo bisitarien eta publikoen arrazoibidea, leku zehatzen merkaturatzea taxutzen duten jarraibide etikoak eta leku bakoitzean bakearen sustapenak edo finkapenak betetzen duen zeregin esplizitua edo inplizitua ulertzeko.
- Lekualda daitezkeen jarduketen, jardunbide egokien eta erronka eta eztabaida nagusien identifikazioa.

## **3.1.** Lekuen identifikazioa

Proiektuaren arduradunek (MTEk eta Flandriako Gobernuak) oinarrizko lerroa finkatu zuten proiektuak barne hartu behar zituen gatazka-paisaiak eta -lekuak identifikatzeko. Hau zen ideia nagusietako bat: gatazkak berri samarrak badira, zailagoa izan ohi da gertaerei buruz objektiboki hausnartzea. Era berean, hain berriak ez diren gatazkak, non antzinako etsaitasunak eta antagonismoak hein handi batean zokoratuta egon diren, berriro sor daitezke diskurtso desegokiak eta okerrak erabiltzen badira.

Azkenik, erabaki zen proiektuak ezaugarri hauetako edozein leku eta paisaia hartu behar zuela barne:

a) Lekua edo paisaia oraindik da gatazka gertatu zen baldintzak eta inguruabarrak sortzeko begi-bistako oinarria.

b) Historia azaltzeko erreferentzia-puntu fisikoak agerrarazten dituen arkitektura- eta arkeologia-nabaritasuna dago.

c) Gatazkak gaur egun ondorea eduki arren, horri buruzko gogoeta objektibo eta heldua egin ahal da (bestela, lekuak elkarrekin adiskidetzeko espazioa izan behar du).

d) Nabaritasun historikoa egiaztagarria da eta gatazka gertaera esanguratsua izan da nazio batean edo nazioen artean.

e) Lekurako edo paisaiarako irisgarritasuna antola daiteke (inbertsio egokiaz).

f) Gazteek edo helduek, lekuarekin erlazionatuta dauden edo hor hil diren senideak dituzten pertsonek edo soilki historiaz interesatuta daudenek lekua edo paisaia bisitatzeak esperientziaren kalitatea islatuko du eta horretaz ikasiko da.

Aspaldi gertatu diren gatazkak barne har daitezke, baldin eta gainerako irizpideak betetzen badituzte.

Lehenengo eta behin, Ikerketa Partzuergoak gatazkekin zerikusia duten eta azter litezkeen lekuen zerrenda luzea egin zuen. Zerrenda horrek 33 leku jasotzen zituen, ikuspuntu geografiko eta tipologikotik orekatua zen eta ezaugarri hauek zeuzkan:

- Asia-Barea eskualdeko 6 leku, Europako eta Ipar Amerikako 6 leku, Afrikako 9 leku, Latinoamerikako eta Karibeko 8 leku, estatu arabiarretako eskualdeko 4 leku.
- Leku-motaren dibertsitatea: paisaia kulturalak, monumentuak, artxiboak, eraikin historikoak, etab.

- Gatazka-motaren dibertsitatea: mundu-gerrak, gerra zibilak, gatazka etnikoak, kolonizazio-prozesuen ondoriozko gatazkak, esklabotza, giza eskubideen aldeko borroka-prozesuak, etab.

MTEk, NBE-etako beste agentzia batzuekin eta agente egokiekin koordinatuta, zerrenda onartu zuen eta amaierako zerrenda mugatua, ikerketa-fasean aztertu eta analizatu behar zena, proposatu zuen: lehen zerrenda luzea murriztu, eta gatazka historikoko 10 lekuko zerrenda bat sortu zen, aniztasun geografiko eta tipologikoaren inguruan oreka bilatuz. Hau da gatazka historikoko 10 lekuko amaierako zerrenda:

## I. Hiroshimako Bakearen Memoriala (Japonia).

Genbaku Kupula, 1914an eraikia eta Hiroshimako Bakearen Parkean kokatua, hiriaren gainean 1945eko abuztuaren 6an jaurti zuten bonba atomikotik bizirik iraun zuen egitura bakarra da. Leku hori UNESCOren Munduko Ondarea da 1996tik eta garrantzitsua da gizadiak garatutako indar suntsitzaileenaren berri ematen duelako eta bakearen sinbolo boteretsua bihurtu delako (UNESCO). Bonba atomikoak 70.000 pertsona hil zituen berehala, eta beste 70.000 urte horretan hil ziren. 1950ean 282.000 biktima zeudela kalkulatzen da (Rhodes, 1995), eta Hiroshima gerra atomikoaren gaitasun suntsitzailearen leku enblematikoa bihurtu zen. Gerraren osteko berreraikuntzan, herritarrek memoria eta min kolektiboak behar izatearekin batera turismoa garatu zen eta, 1947tik, haren alderdi baketsua begi-bistakoa zen (Schafer, 2016). Genbaku Kupulak eta Hiroshimako Bakearen Museoak nazioko eta nazioarteko milioi bat bisitari baino gehiago izaten dituzte urtero, bidaia hezigarria, memoria-bidaia eta ohiko turismo masiboa konbinatuta (Yoshida *et al.*, 2016). Leku hori aztertzean, Nagasaki ere kontuan hartu zen, bi hiriok biltzen dituen lotura historikoa dela eta.

## II. Tuol Slengeko Genozidioaren Museoa (Kanbodia).

Tuol Slengeko Genozidioaren Museoa S-21 espetxea eta galdeketa-zentroa zegoen lekuan dago, Phnom Pehn-en (Kanbodian). Leku horretan, kalkulatzen da 15.000 eta 20.000 pertsona bitartean atxilotu, galdekatu, torturatu eta, kasu askotan, erail zituela Khmer Gorrien Erregimenak (Chandler, 1995). Museoak 1,5 milioi eta 2 milioi zibil bitarteko erailketa aitortzen du (gutxi gorabehera herrialdearen biztanleriaren bosten bat izan zen). Museoan, artxiboko materiala, margolanak eta S-21etik pasatu ziren pertsonen argazkiak (Cheung Ek-eko exekuzio-esparruko irudiak barne) erakusten dira, baita gatibuak torturatzeko eta hiltzeko tresnak ere. S-21 aurkitu eta ia berehala bihurtu zen museo. UNESCOren Munduko Memoriaren Erregistroak 2009ko uztailean barne hartu zituen museoko artxiboak, haien garrantzi historikoa ohoratzeko asmoz. Artxiboak gatibu horien 5.000 argazki baino gehiago biltzen ditu, baita “aitorpenak” ere, horietako asko torturapean lortuak. Halaber, gatibuen, espetxeko zaindarien eta segurtasun-aparatuko ofizialen bestelako erregistroak dauzka.

## III. Stari Most, Mostarko Zubi Zaharraren zona (Bosnia-Herzegovina).

Mostarko Zubi Zaharraren zona UNESCOren Munduko Ondare da eta oso ezaguna da arkitektura-miraria izateaz aparte, ehun milaka pertsona hil ziren Bosniako gerra (1992-95) bukatu osteko adiskidetzearen sinboloa delako. XVI. mendeko zubia Mimar Harjuddin arkitekto ospetsuak eraiki zuen eta 1993ra arte iraun zuen, orduan Bosniako gerran suntsitu baitzuten. Zubiak eta haren inguruneak askotariko eta kultura anitzeko arkitektura zuten ezaugarri, islamaren, judaismoaren eta kristautasunaren eraginak islatzen baitzituen. Zubi suntsituak gerraren gaitasun suntsitzailea eta gatazkaren ostean iraun zuten banaketak sinbolizatu zituen. Nazioarteko gainbegiraketa eta babesarekin, zubia arreta handiz eraiki zuten, ibaitik berreskuratutako jatorrizko harria erabiliz, eta 2004an berriro zabaldu zuten. Zubi Zahar berreraikia eta Mostarko Hiri Zaharra adiskidetzearen, nazioarteko lankidetzaren eta askotariko komunitate kultural, etniko eta erlijiosoen bizikidetzaren sinboloak dira. Mostarko askotariko komunitate guztietako hiritarrak harro daude zubiaz, eta gizarte banatu baten batasun sinboliko gisa eta turismo-erakargarri nagusi gisa erabiltzeko berreraiki zen (Grodach, 2004). Turismoa gero eta garrantzitsua da Mostarren, eta hiriak 350-450.000 bisitari inguru hartzen ditu urtero (Pestek eta Nikolic, 2011).

## IV. Auschwitz-Birkenau. Kontzentrazio- eta deuseztatze-esparru nazi alemana (Polonia).

1942 eta 1945 bitartean, Auschwitz-Birkenaun milioi bat eta milioi bat eta erdi pertsona bitartean espetxeratu, torturatu, janaririk gabe utzi eta deuseztatu zituzten sistematikoki, eta, kalkulu batzuen arabera, hildakoen % 90 juduak ziren. Naziek ijitoak, poloniarrak, komunistak, homosexualak eta beste asko ere espetxeratu eta hil zituzten. Auschwitz-Birkenauko Estatuko Museoak leku horretan egindako krimenen eta esparru famatuan espetxeratutako pertsonen sufrimenduaren memoria egin, eta hori gogorarazten du. Holokaustoaren sinbolo gisa (Partee Allar, 2013) —“behe-mailakotzat jotzen zituzten taldeei giza duintasuna ukatzeko

ahalegin gizagabe, krudel eta metodikoaren" lekukotza bizia (UNESCO)—, lekua Munduko Ondarea da (1979). Museoak gatibuei konfiskatutako objektuak dituen erakusketa iraunkorra dauka, baita Auschwitzen hil ziren askotariko nazionalitateak irudikatzen dituzten monumentuak eta objektuak barne hartzen dituen erakusketa nazionala ere. Auschwitz II-Birkenau deuseztatze-esparruak gas-ganbera doilorren aurriak eta Auschwitzeko Holokaustoaren Memoriala barne hartzen ditu. Auschwitzek milioi bat bisitari erakartzen ditu urtero, eta bisitari gehienen motibazio nagusia hezkuntzari dagokio.

### V. Bakearen Parkea eta Irlanda Uharteko Dorre Biribila (Messines, Flandria, Belgika).

Bakearen Parkea eta Irlanda Uharteko Dorre Biribila, Messinesen (Belgikan) kokatuak, Armada Britainiarraren 10. Dibisioaren (irlandarra), 16. Dibisioaren (irlandarra) eta 36. Dibisioaren (Ulsterkoa) biktimen oroipena egiteko eta Irlandan historia partekatu bat berreskuratuz bakea sustatzeko eraiki ziren. Parkea honako hauek inauguratu zuten batera: Mary McAleese Irlandako presidenteak, Isabel II. Erresuma Batuko erreginak eta Alfred Belgikako erregeak. Bakearen Parkea eta Dorre Biribila eskualdeko oroipen-bisiten ibilbidean sartzen dira (Iles, 2006), eta ingurune nazionalistetako eta unionistetako gazteek komunitate arteko bisitetan parte hartu dute, lekuan dagoen Peace Village-n ostatua hartuz.

### VI. Robben uhartea (Hegoafrika).

Robben uhartea, Hegoafrikako erakargarri turistiko eta kultural ospetsuena (Shackley, 2001), 1999an sartu zen UNESCOren Munduko Ondarearen zerrendan. Duela gutxiko bere historiaren zati handi batean, Robben uhartea espetxe gisa erabili da, eta horko gatibu famatuena Nelson Mandela Hegoafrikako presidentea izan da (Afrikar Kongresu Nazionalaren beste lider batzuez gain). Horregatik, *apartheid*en eta berdintasunaren aldeko borrokaren sinbolo boteretsua bihurtu da. Robben Uharteko Museoa Hegoafrikako monumentu nazional izendatu zuten 1996an eta Mandelak inauguratu zuen, 1997an; hala ere, presaka ireki zenez gizarte-aldaketa sakon eta azkarreko agertokian, lekuak hasieran zerbitzu gutxi eta diskurtso zertxobait mugatua zeuzkan (Strange eta Kempa, 2003). Museoak talde behartsuentzako bisita bereziak eskaintzen ditu (Corsane, 2006) eta gatibu ohiek gidari moduan lan egiten dute bertan. Gaur egun, museoak uharte osoa hartzen du eta bisitariei haien historia desberdinei buruz gogoeta egiteko eskatzen zaie. Erakargarri nagusia Mandelaren gela da oraindik, B blokean. Egunero 2.000 bisitari inguruk —eta Mendebaldeko Lurmuturreko Probintziara joaten diren bisitari nazional guztien % 10 baino gehiagok— egiten dute Robben uharterako txangoa (Shackley, 2001).

### VII. Kigaliko Genozidioaren Oroipen Zentroa (Ruanda).

Kigaliko Genozidioaren Oroipen Zentroa Gisozin (Kigalin) kokatuta dago eta 1994ko Ruandako genozidioaren oroipena egiten du. 100 eguneko aldian, kalkulatzen da 800.000 pertsona (gehienak, tutsiak) erail zituztela sistematikoki nekazariek, miliziek eta armada hutuak, mendebaldeko esku-hartzerik gabeko politika batean (Melvern, 2000). Erdialdean, genozidioaren 250.000 biktimaren errautsak dituen lorategi bat dago, baita museo bat ere, hiru erakusketa dauzkana: 1994ko genozidioa, alferrik galdutako bizitzak eta haurren logela. Erakusketa nagusiaren komisarioa Aegis Trust da (genozidioak saihesteko borrokatzen den GKE britainiarra), eta, horregatik, museoa gatazkaren ondorengo "Ruanda Bat" politikaren norainokotik kanpo dago nolabait; politika horrek debateak edo nortasun etnikoaren adierazpena debekatzen ditu eraginkortasunez (Hohenaus, 2013). Leku horren xedea oroipenari eta hezkuntzari dagokie eta "sekula ez gehiago" paradigman sartzen da irmoki. 1994an turismo-sektorea ia guztiz hondoratu zen arren, Ruandak nazioarteko 30.000 bisitari inguru izaten ditu orain urtero; gehienak mendiko gorilak ikusi nahi dituzten ekoturistak dira, baina askori genozidioaren oroipen-lekuak ere interesatzen zaizkio.

### VIII. ESMA Ohia - Memoriaren Toki Museoa eta Memoriaren eta Giza Eskubideen Espazioa (Argentina).

1976 eta 1983 bitartean, Argentinako azken diktadura militarrean, milaka pertsona atxilotu, galdekatu eta torturatu zituzten kontzentrazio-esparru klandestinoetan; horien artean handiena Armadaren Mekanika Eskola (ESMA) izan zen. Hego Amerikako zentro enblematikoena izan zen, eraikinaren tamainagatik eta Buenos Aires Hiri Autonomoaren erdigunean egoteagatik, armadako ofizialak hor atxilotuekin eta desagertuekin bizitzeagatik eta espetxeratzeko eta deuseztatzeko erabileragatik, horien ondorioz kontzentrazio-esparruen antzekoa baita. 2004an, Armadako Mekanika Eskolako eremua Estatuak berreskuratu zuen eta gaur Memoriaren eta Giza Eskubideen Espazioa bihurtu da, bertan giza eta familia eskubideen elkarteak eta erakundeak elkarbizitzen direlarik. Bisitarientzat zabalik dago eremua eta bere barne, Ofizialen Kasino ospetsuan, gaur egun ESMA Memoriaren Toki Museoa kokatzen da. Museoak diktaduraren

krimenak eta izua gogoratzen ditu, bisitari mota desberdinetara egokitutako hainbat interpretazio prozesu barne. Gainera, ESMA Toki Museoa leku historikoa da eta, beraz, giza eskubideen urraketa horien lekukotza material eta fisikoa da. Ohiko oroipen-izaera edukitzeaz gain, ESMAk komunitatearentzako ekitaldiak antolatzen ditu aldizka, iragana sormenezko baliabideak erabiliz interpretatzeko xedearekin. Bisitari gehienak argentinarrak dira.

### IX. El-Alameineko Oroipen Zentroa (Egipto).

El-Alameineko Oroipen Zentroak Bigarren Mundu Gerran (1939-45) Afrikako iparraldeko kanpainetan borrokatu eta hil ziren Commonwealth-eko soldaduen oroipena egiten du. 7.240 soldadu inguru daude hor lurperatuta. Bisitarien zentroa egunero dago zabalik. El-Alamein Afrikako iparraldeko gerra-hilerria den arren, “gerrako”, “bakeko” turismoa eta turismo “iluna” oraindik ez daude oso garatuta Egipton, eta haren aldekoek errebindikatzen dute turismo hori sustatzeak abantaila ekonomikoak dakartzala eta gizarteei iragan traumatikoak prozesatzen lagundu ahal diela (Attia *et al.*, 2015). Commonwealthen memoriala ez ezik, El-Alamein inguratzen duen zonak soldadu italiarren, alemanen, greziarren eta libiarren oroipena egiten duten monumentuak ere hartzen ditu barne.

### X. Aqabako gotorlekua (Jordania).

Gotorlekua 1510 eta 1517 bitartean eraiki zen, monumentuko atea igarotakoan dauden arabierazko inskripzioek aditzera ematen duten moduan, eta Mekara zihoazen erromesentzako *khan* (bidaiarientzako ostatu) gisa erabili zen. Zenbait aldi historiko islatzen dira, eta historiako une garrantzitsu batzuek ere, esate baterako, Arabiar Matxinadak (1916) eta Lehen Mundu Gerrak, aztarna utzi zuten lekuan. Gotorlekua egunero dago zabalik eta sarrera doakoa da. Gotorlekuaren ondoan, Aqabako Arkeologia Museoa dago. Turismoa Jordaniako ekonomiarentzako ekarpen handia da, 2008an herrialdearen BPGd-ren % 14,7 izan zen (Al Haijja, 2011) eta bake-dibidendu garrantzitsutzat jotzen da (Lynch, 1999).

## **3.2.** Analisi-prozesua

Turismo-prozesuen sustapenean eta leku turistikoetako bakearen finkapenean jardunbide egokiak identifikatzeko helburuarekin, Ikerketa Partzuergoak lau zatitan egituratutako ikerketa-prozesu bat prestatu zuen:

1. Agirien azterketa: agiriak berrikustea, leku bakoitzeko informazio eskuragarria analizatzea eta artikuluak biltzea barne hartzen zituen. Leku bakoitzeko informazioa biltzearen helburua zen bisitarien eta bakearen finkapenaren inguruko ekimenei buruz ahalik eta informazio gehien jasotzea.

2. Elkarrizketak bisita-zentroetako arduradunekin eta beste agente batzuekin: elkarrizketa erdi egituratuak eta galde-sorta laburrak egitea bisita-zentroetako arduradunei eta ondarearen interpreteei.

3. Lehenik definitutako lekualda daitezkeen jarduketak aplikatu ahal izateko orientabidea, hautatutako landa-bisitetan berrikuspen zabala eginez eta agente eta talde hartzaileekin bilerak izanez.

4. Leku bakoitzeko jardunbide egokien, lekualda daitezkeen jarduketen, erronken eta eztabaiden identifikazioa. Ondorio horiek jarraibide etiko batzuk proposatzeko oinarriak ere izango ziren.

Kasuan kasuko lekuetan bisiten eta turismoaren bidez bakearen kultura sustatzeko egindako lanaren funtsezko alderdiak identifikatze aldera, leku horiek analizatzeko eremuak eta ikuspegiak planteatu ziren:

- Leku-mota.
- Lekuaren aurrekariak eta testuingurua (egitate historikoak, gatazkari buruzko informazioa eta turismo -sektorearen egungo garapena).
- Harremanetarako informazioa eta kudeaketaz arduratzen diren erakundeak.
- Nazio Batuetako sistemarekiko lotura posibleak.
- Lekuko turismoari eta bakeari buruzko ideia nagusiak.
- Bisitariei buruzko informazioa.
- Turismo-zerbitzuak.

- Lekuko lan-programa nagusiak.
- Memoriak jendeari aurkeztea.
- Toki-komunitateek memoriaren kudeaketan eta prestaketan parte hartzea.
- Sektore publiko eta pribatuarekiko lankidetza.
- Jardunbide egokiak.
- Erronka eta eztabaida nagusiak.
- Eta abar.

Bestalde, lekuez arduratzen diren pertsonek turismoaren eta bakearen finkapenaren artean ezartzen duten erlazioa sakonki ulertze aldera, beste zenbait alderdi hartu ziren aintzat elkarrizketetan:

- Ondarearen sektoreko aurrekariak eta esperientziak.
- Bakea finkatzeko prozesuei buruz lehen egindako lana.
- Museoek eta lekuek bakeari laguntzeko bete lezaketen zereginari buruzko ikuspuntu pertsonala.
- Hartzaileak: dibertsitatea eta bisitari berrien erakarpena.
- Lekuan diskurtso eta erakusketa eztabaidagarriak erakusteko aukera.
- Gatazka izan duten lekuetarako kode etiko baten erabilgarritasun posibleari buruzko iritzia.

Leku guztiekin harremanetan egon ginen eta partaidetza guztiz borondatezkoa izan zen. Zenbait agentek parte hartu zuten, bai bisita-zentroetako arduradunak eta arduradunak identifikatuz bai galde-sortei edo elkarrizketei erantzunez[4].

Proiektuan, bi leku aukeratu ziren landa-bisita baten bidez analisi sakonagoa egiteko: Auschwitz (Polonia) eta ESMA Toki Museoa (Argentina). Hor, zenbait agenterekin bilerak egin ziren, hala nola agintariekin, bisita-zentroetako arduradunekin, biktimekin eta senideekin, toki-komunitateekin, GKE-ekin eta elkarteekin eta abarrekin.

4 Parte-hartzaileen zerrenda, III. eranskinean.

# 4. Gatazka-lekuetako turismoaren eta bakearen inguruko eztabaidak eta erronkak: ikuspegi orokorra

Ikerketa honetan aztertutako leku bat ere ez dago eztabaidatik zeharo libre, eta askok zenbait erronkari aurre egiten jarraitzen dute. Erronka horiek askotarikoak dira, baina sei kategoria analitiko handitan bildu dira:

## 4.1. Historia traumatikoak merkaturatzeari lotutako erronkak

Historiak merkaturatzeak oroipenak eta ondarea kontsumo-produktu bihurtzea esan nahi du. Leku askotan, prozesu horri lotutako arazoak sortu dira. Hori agian logikoa da, zeren eta bakearen turismoa historia traumatikoen memoria eta oroipenarekin erlazionatutako lekuak eta jardunbideak merkaturatzeari lotuta egon ohi delako. Memoria horiek sakratutzat jo ohi dira eta sekulako sentikortasunarekin kudeatu behar dira aurkaritzarik sor ez dezaten. Gatazka baten ondorengo testuinguruetan memoria kolektiboaren garrantziaren inguruko adostasun zabala egon ohi den arren, kudeatzeko modu zehatzari buruzko eztabaida sortu ohi da. Hori gatazka-lekuak garapen turistikoaren ardatz nagusia direnean gertatzen da bereziki.

Ikerketa honetan, merkaturatze-prozesuari lotutako bi erronka-mota identifikatu dira. Lehenengo eta behin, historia arinki hartzeko prozesuaren bidez, historia traumatiko bati inportantzia kentzen zaio edo garrantzi hori merkaturatzeko prozesuan galdu egiten da. Bigarrenik, ustiapenak onura material eta sinbolikoen eta historia merkaturatuz bildutako mozkinen banaketari buruzko eragozpenak dakartza.

### a) Arinki hartzea

Historia arinki hartzeko prozesuaren bidez, historia traumatikoen berezko garrantzia eta izaera sakratua galdu edo kentzen dira, merkaturatze-prozesua dela eta. Kitschifikazio, disneyizazio/disneyfikazio eta parke tematiko bihurtzeko azpiprozesuei lotzen zaie eta polemika larriak eragin ditzake. Ikertutako leku batzuetan, arinki hartzeari lotutako arazoak begi-bistakoak ziren.

Robben Uharteko Museoa sailkapen bikoitza duenez, leku sakratu gisa eta garapen komertzialerako leku gisa, arrunki hartzeko prozesuarekiko bereziki kaltebera da. Uhartearen marka-irudia pertsona ospetsu baten inguruan, kasu honetan, Mandelaren irudiaren inguruan eraikitzetik (Kavartzis eta Ashworth, 2006), erraza zen arretarik gabe kodifikaturiko oroigarriak, hala nola Mandelaren gatibu-kamisetaz jantzitako peluxezko hartzak, diseinatzera pasatzea. Bere lehen egunetan, Uharteko museoa parke tematiko gisa eta leku sakratu gisa deskribatu zuten neurri berean (Shackley, 2001). Kitschifikazio horrek uharteko historia traumatikoak arinki hartzea zekarrelako kritiken erdian, orain Robben Uharteko Museoa lekuaren “komertzializazio duindu” bat egiten saiatu da. Horrek esan nahi du, besteak beste, Robben uhartearen markaren osotasunean jartzen dela arreta nagusia.

Egiazkotasun solemnea eta doilorkeria gorabehera, Auschwitzek ere arinki hartzeari buruzko debatea sortu du. Museoa bera marketin eta publizitatearekin oso arretatsua den arren, Krakoviako eta inguruetako turismo-enpresa batzuek lekua oldarkortasunez sustatzen dute “nahitaez bisitatu beharreko” turismo-erakargarri gisa. Museoko kontserbatzaileek esaten dute sektore pribatuko bidaia-agentzia handizkariek lekua irudikatzen duten moduan eragiteko aukera gutxi dituztela.

Bizirik irten direnek eta Argentinako GKE-etako ordezkariek ere adierazi zuten, izandako elkarrizketetan, kezkaturik egon zirela ESMA jendearentzat lehenengo aldiz ireki zenean. Zehazki, arduraturik zeuden lekuaren garrantzian beharrezko arreta jarri behar zelako jendearentzat irekitzeak han gertatu ziren giza eskubideen urraketen historia arinki hartzea ekar ez zezan.

Hiroshima eta Nagasaki, Bigarren Mundu Gerrako “paisaia traumatiko” gailenak zirenez (Tumarkin, 2005), merkaturatutako eta helmuga turistiko gisa garatutako lehen lekuetakoak izan ziren. Jadanik 1960ko hamar-

kadatik, bonbaren "turistifikazioa" kritikatu da (Schafer, 2016), *hibakusha* direlakoen (bizirik atera zirenen) ustez ez delako oso sentikorra. Hiroshima eta Nagasakiko agintariak arretatsuak dira eta bakeari lotutako turismoa sustatzen saiatzen dira, turismo iluna berez bultzatu beharrean.

Kezka egon da Kanbodiako genozidioa parke tematiko bihurtu ahal zelako. Tuol Slengek Choeung Ekeko exekuzio-esparrua baino hezigarriagoa izateko ahalegina egiten duen arren, azken hori ageriki komertzializatuta baitago, bi erakargarriak ibilbide berean egon ohi dira. Halaber, Pol Pot-i buruzko kafe tematiko bat, turistei genozidioa "sentitzeko" aukera eskaintzen diena, zabaltzeagatiko kezka adierazi da (Henderson, 2007). DC-Cam zentroaren (Yale-ko Unibertsitateak finantzatuta) eta haren ondorengoaren, Sleuk Rith Institute-ren, lankidetzei esker, Tuol Sleng saiatu da genozidioaren beste irudi bat, hezigarriagoa eta hain ageriki ideologikoa ez dena, eskaintzen.

### b) Ustiapena

Ustiapen-prozesuaren bidez, gatazka historikoaren merkaturatzearen ondorioz bildutako mozkin material eta sinbolikoak ez dira gatazkak ukitutako pertsonen artean partekatzen eta haiek ez dute horietaz gozatzen. Ildo horretan, ustiapena bidegabekeria morala da. Arinki hartzen denean gertatzen den bezala, ustiapenari lotutako kezkak ere begi-bistakoak izan ziren zenbait lekutan. Gatazka historikoa merkaturatzearen ondorioz sortzen den ustiapenari buruzko kritika ezagunenak, beharbada, Holokaustoaren industria delakoa agertzearekin du harremana (Finkelstein, 2000). Auschwitzeko zuzendaritzak eta langileek lan gogorra egin dute museoa aldi berean oroipenekoa eta hezigarria izan dadila bermatzeko eta haren ezaugarri turistiko eta komertzialei garrantzia kentzeko.

Kanbodian, Choeung Ekeko exekuzio-esparruaren garapen komertzialaren eskubideak sustatzaile pribatu atzerritar bati alokatu zaizkio. Hemen, ustiapen-sentsazioa areagotu egiten da goi-mailako Khmer Gorri askok justizia saihestu ez ezik ondorengo administrazioetan goi-karguak ziurtatu ere egin dituztelako. Izan ere, alegatu da genozidioan basakeriak egin zituztenetako batzuek etekina atera diotela aldi horren geroko turistifikazioari (Sion, 2011).

Ruandak lurpetik ateratako biktimen hezurren eta gorpuen erabilerarekin zerikusia duten erronkei aurre egiten die; hain zuzen, lehenik genozidioren izugarrikeriak aitortzeko erabili ziren, baina orain ziurrenik turismo ilunaren erakargarriak dira (Friedrich eta Johnson, 2013). Kigaliko Genozidioaren Oroipen Zentroa, Aegis Trust erakundearekin (genozidioak saihesteko borrokatzen den GKE britainiarrarekin) batera, aitzindaria izan da eragina sortzean ardaztu beharrean oroipenaren balio hezigarria sustatzen (Hohenhaus, 2013), eta genozidioa ikertzeko zentroa bihurtzeko plan handinahiak dauzka (Sodaro, 2011). Kigaliko Zentroa, bereziki, ez da Ruandako beste leku batzuk bezain grafikoa gertaerak eta 1994aren osteko aldia deskribatzean, eta memoria etikoari buruzko irakaspen batzuk eman ditzake.

## **4.2.** Gerra goraipatzeari lotutako erronkak

Bakearen turismoaren parametroak, agian, gerrari bakeari baino askoz ere lotuagoak dauden lekuak barne hartzeagatik zalantzan jartzen dira. Leku horiek tanatoturismoaren edo ohikoaz baino ilunagoa den turismoaren adibideak dira ziur aski (Lennon eta Foley, 2000; Seaton, 2010). Izan ere, argudia liteke lekuek ez dutela bakearen sustapena irudikatzen, gerraren goraipamena baizik. Horren adibide nabarmen batzuk aliatuek bi mundu-gerretan egindako kanpainei lotutako lekuak dira, hots, Messines eta El-Alamein. Lehenari dagokionez, Bakearen Parkea eta Irlanda Uharteko Dorre Biribila bakea eta adiskidetzea sustatzeko asmatu ziren, horretarako, Messinesen soinez soin borrokatu ziren nazionalista irlandarrek eta unionistek partekatutako historia berreskuratu zen. Zehatz-mehatz, komunitate arteko bisita hezigarrien bitartez, nazionalistei eta unionistei eskatzen zaie batzen dituenari eta gerraren izugarrikeriei buruz gogoeta egiteko. Hala ere, lubaki-gerraren testuinguruak, garaipena erlatiboa izan zela aipatzeaz gain, ekimenaren edukitzaileari buruzko galderak planteatu ditu (Jeffrey, 2000). Era berean, El-Alameineko Oroipen Zentroak, Commonwealtheko soldaduek El-Alameineko guduetan egin zituzten sakrifizioei gorazarre egiten baitie, ziurrenik "une onenetariko" bat eta Britainia Handiak Bigarren Mundu Gerran izan zuen garaipen erabakigarrienetako bat irudikatzen ditu bakea bera irudikatu beharrean. Horrez gain, oroipen-zentroa ez da oso irisgarria, Alexandriatik hirurogei miliatara dago eta

militarren eta militar ohien erakundeek bisitatzen dute nagusiki. Bi kasuetan, eremuan lan egin behar da gerra goraipatu beharrean fokua bakean mantentzeko.

## **4.3.** Historia ideologikoei eta orainaldiaren legitimazioari lotutako erronkak

Patrimonializazio edota ondare bihurtzeak garrantzitsutzat jotzen diren iraganeko alderdien kontserbazio selektiboa dakar; horrekin batera, ikuspuntu zehatzak eta hautatzeko eta irudikatzeko politika bat datoz. Ondarea partziala denez eta zedarrituta dagoenez, logikoa da oraina justifikatzeko oso diskurtso ideologikoak erabili ahal izatea (Tunnbridge eta Ashworth, 1998). Zenbait kasu-azterketatan, aurretiko ikerketak iradokitzen du kezkak daudela iragana oso orain arazotsuak justifikatzeko edo legitimatzeko erabiltzearen inguruan.

Ruandan, adibidez, estatuak memoria eta oroipena kontrolatzen dituenez, Ruandako Fronte Patriotikoa genozidioari amaiera eman zion heroitzat jotzen da, eta horrela oraingo administrazioa indartzen da (Sodaro, 2011). Horren funtsezko elementu bat genozidioaren diskurtso hegemonikoa izan da, Kigaliko Genozidioaren Oroipen Zentroan eta beste leku batzuetan aurkeztutakoa, nazioko eta nazioarteko pertsonak xede baititu. Bisitari atzerritarrek museoaren "sekula ez gehiago" mezua babesten duten arren, filosofia horrek genozidioaren eta dibisionismoaren ideologia saihesteko erabilitako errepresio-legeria ere bermatzen du eta oposizio politikoaren aurkako neurri gogorrak ezartzearen alde egin du (Reyntjens, 2004; Ibreck, 2010).

Antzeko diskurtso ideologiko bat Kanbodiako Tuol Slengen ikus zitekeen; hain zuzen, hasieran, 1979an, propaganda-xedeetarako baliatu zen nagusiki (Ledgerwood, 1997). Mai Lam komisario vietnamdarrari agindu zioten erakusketa bat sor zezan munduari argi eta garbi frogatzeko Vietnamen esku-hartzea ez zela inbasio oldarkorra izan, baizik eta genozidioa saihesteko balio izan zuela (Tyner *et al.*, 2014). Historikoki, Tuol Slengeko erakusketak, bere garaian giza garezurrez egindako mapa bat barne hartzen baitzuten, bereziki ilunak izan dira eta bisitari atzerritarren irudimena erakartzean ardaztu dira nagusiki (Benzaquen, 2014). Lehen aipatu den moduan, azken garaiotan, museoa hain ideologikoak ez diren genozidioaren diskurtsoak prestatzeko lanean aritu da. Ondorioz, erakusketa "leundu" egin da, eta orain hezkuntzan jartzen da arreta nagusia.

Azkenik, Hegoafrikan, Robben Uharteko Museoa egungo arraza-, ekonomia- eta genero-desberdintasunen inguruko eztabaiden erdian dago. Museoa Apartheiden aurkako Afrikako Kongreso Nazionaleko aktibista garrantzitsu gutxi batzuenganantz bideratu da, bereziki Nelson Mandelarenganantz, eta horrek ortzadarraren nazioaren agerketaren eta giza ispirituaren garaipenaren estatuko diskurtsoa kopiatu eta indartzen du. Diskurtso horrek gero eta areago egiten du Apartheiden osteko Hegoafrika berriak ezaugarri dituen etengabeko desberdintasunen eta indarkeriaren —fisikoaren eta egiturazkoaren— aurka (Strange eta Kempa, 2003), eta Robben Uharteko Museoak arazo horri aurre egin behar izan dio.

## **4.4.** Garapen neurrigabeari eta ondarearen kontserbazioari lotutako erronkak

Zenbait leku beraien arrakastaren biktimak bihurtu dira; izan ere, hainbeste bisitari erakarri dituzte non egoera horrek ingurumen-narriadurarekin eta ondare ukigarriaren eta ukiezinaren kontserbazioarekin zerikusia duten arazoak eragin dituen.

Robben uhartea eta Auschwitz, adibidez, zeuden kudeaketa-planek ahalbidetzen zituztenak baino bisitari gehiago erakartzen hasi ziren lekuak dira. Auschwitzek bi milioi bisitari baino gehiagoko errekorrezko kopuruak jaso zituen 2016an. Esparruko jatorrizko ostatu-eraikinetako gelatxoetatik pasatzen ziren turista-taldeen zalapartak lekuko solemnitatea hutsaltzeko arriskua ekarri zuen. Arazoari hein batean heltzeko, bisita gidatuetako taldeentzako audio-entzungailuak sartu dira. Auschwitzen, audio-gidak eta entzungailu horiek orain nahitaezkoak dira eta zarata eta asaldurak eraginkortasunez murrizten dituzte, baina Birkenaun, irekiagoa eta zabalagoa baita, ez dira erabiltzen.

1997an ireki zenetik, Robben uharteak gero eta bisitari gehiago erakarri ditu urtero. Mandelaren antzinako gela, segurtasun goreneko kartzelako B blokekoa, erakargarri nagusia da eta egunean bi mila bisitari ere

har ditzake; hortaz, aglomerazioak sor daitezke. Robben uharteko historia Mandelaren biografiari lotuegia geratu delako kritikei hein batean erantzuteko, eta orobat aglomerazioen arazoa konpontzeko asmoz, uharteko historiaren beste alderdi batzuk gehitu zaizkie bisitei, jendetza banatu eta mailakatze aldera.

Mostarren, turisten benetako kopurua gutxitzen ari da, baina Bosniako agintariek modu oldarkorrean sustatu dute hiria berrasmatzeko eta birkokatzeko helburuarekin (Kürsad Özlen eta Poturak, 2013). Berrasmatze horren zentro enblematikoa denez, Mostarko Stari Mosten ospearen ondorioz, saltokietako, oroigarri-postuetako artisautza- eta landa-industria bat agertu da, baita liburu-saltzaileak ere, bisitari ugariak asebetetzeko (Björkdahl eta Mannergren, 2016). Berreraikitako zubiaren sinbolismo gainkodetuak nahasi egiten du eta ez du uzten oraindik badirauten banaketak ikusten; gainera, lekuan turista asko daudela kritikatu da, oso benetakoa ez den eta disneyfikatuta dagoen egoera bat sortzen baitu (Forde, 2016).

Aqaban, hotelen eraikuntza azkarrak eta antzeko beste aurrerapen batzuek Jordania eta Israelen arteko tratatuaren osteko hazkunde-aurreikuspen optimistei erantzun zien (Hazbun, 2002). Aurrerapen horiek, antza denez, Jordaniako kostaldearen edertasun naturalari kalte egin diote, eta hiriko hondartzen pribatizazioak bertakoen erresumina elikatu dute (Grey, 2002; Al Haija, 2011). Halaber, kezkak sortu dira ustezko kontserbazio-ekimenek, paisaia jakin batzuk edertzean ardazten baitira nagusiki, hiriko kultura-ondarea merkaturatzeko balio dutelako, eta oraindik galdera hau erantzun gabe dago: nork ateratzen dion ziurrenik onura programa horiei (Daher, 2005).

## **4.5.** Biktima-izaerari buruzko politika eztabaidagarriei lotutako erronkak

Zenbait lekutan, biktima-izaera bera polemikagai izan da, eta interes-talde batzuek sufrimenduaren jabetzari buruzko elkarren aurkako errebindikazioak adierazi dituzte. 1947an Auschwitz museo izendatu zenean, diskurtso nagusia ideologia naziak eragindako sufrimendu poloniarrarena zen. Ekialdeko Blokea desegitean, diskurtso hori nabarmen aldatu zen. Gaur egun, Auschwitz Holokaustoaren paisaia enblematikoa da (Partee Allar, 2013) eta milioi bat judu baino gehiago sistematikoki hil zituzten leku gisa gogoratzen da nagusiki. Horrekin batera polemika etorri da; izan ere, Auschwitzen eraildako kideak zituzten beste talde batzuek beraien historia traumatikoak errebindikatzen dituzte. Oroipen-lekuek partekatu arren talde zehatzetarako sakratuak izaten jarraitu ahal izateko moduari buruzko azterlanak sustatzen ditu Auschwitzeko Museoak.

Japonian, Hiroshimak eta Nagasakik bakearekin duten erlazioa zalantzan jarri dute kritika batzuek; izan ere, baieztatzen dute ez direla aintzat hartzen Japoniak gerran egindako erasoak eta Asiako ondoko herrialdeei eragindako biktimak (Siegenthaler, 2002). Txinak eta Estatu Batuek zalantzan jarri dute Hiroshima UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrendan sartzearen egokitasuna. Turismo-garapenaren alderdi komertzialen eta *hibakusha* direlakoek (bonbetatik bizirik atera zirenek) jasotako tratuaren arteko desadostasuna ere eztabaidatu da (Lifton, 1967).

Ruandan, oroipen-erakunde batzuek kritikak jaso dituzte genozidioaren eta osteko gerra-krimenen biktima hutuak ukatzen lagundu dutelako. Kigaliko Genozidioaren Oroipen Zentroak, adibidez, gobernuaren politikari jarraitu dio zentroaren gai nagusia “Ruandako 1994ko genozidio tutsia” izendatzean (Ibreck, 2010). Horrela, biktima-izaeraren monopolio tutsia kopiatzeko eta estatuko diskurtso gailena indartzeko arriskua dago (Reyntjens, 2004).

El-Alameinen, Ardatzeko eta Indar Aliatuetako hildakoei eskainitako oroipen-leku asko daude. El-Alameineko Oroipen Zentroak Afrikako Iparraldeko kanpainan hil ziren Commonwealtheko 7.000 soldadu baino gehiagori gorazarre egiten dien arren, zenbatesten da 8.000 beduino nomada ere hil direla atzera egin zuten armadek utzitako minen ondorioz (Barlow, 1999), eta ezin konta ahala pertsona mutilatu dituztela. Ez da heriotza horien oroipenik edo aitorpenik egiten, eta kalte-ordainak eskatzeko kanpainek aurrerapen eskasak lortu dituzte. Nazio Batuen kalkulu berrien arabera, Egiptoko lurraldearen % 25 ere lurreko minen eraginpean dago (NBGP, 2016); minek oraindik biktimak eragiten dituzte eta garapen ekonomikoa zailtzen dute Bigarren Mundu Gerra amaitu eta hirurogeita hamar urte geroago.

## **4.6.** Finantzaketa-erronkak

Ikerketa honetan sartutako ia leku guztiek aurre egiten diete finantzaketari lotutako erronka horiei. Beste arduradun batzuen artean, ESMA Museoko zuzendaritzak finantzaketa eskasaren, arinki hartzearen eta irisgarritasunaren arteko erlazioaren ondoriozko kezka adierazi du, oro har turismo-eremu horren arazo sintomatikoak baitira. Ziurgabetasun ekonomikoak komertzializazioa areagotzen du eta, beraz, ziurrenik beste arazo batzuk sortzen ditu. Arinki hartzen eta ustiatzen diren kasuak espekulazioarekin ez ezik ziurgabetasun finantzarioarekin ere badute zerikusia. Zorroztasunari eta finantzaketaren atzera-egiteari aurre egiten dioten erakunde askok buruaskitasuna eta berritzeko gaitasuna frogatu behar dituzte bizirik iraun nahi badute. Sartzeko prezioak ezartzeak finantzaketa-gabezia zehatzak konpon ditzake, baina estrategia horrek biztanle-talde osoak kanpoan uzten ditu nahitaez (Robben uharteari eta Tuol Slengi horixe leporatu zaie). Era berean, opari-denda bat sartzeak eta sustatzeak hain beharrezkoa den eskudiruaren zati bat sor dezake, baina merkataritza-sustapeneko artikuluak saltzeak gertaera historikoak arinki hartzea eta gorde nahi den sakratu-izaera galtzea ekar dezake (Shackley, 2001).

Irlanda Uharteko Bakearen Parkearen estatuz haraindiko gobernuaren testuingurua dela-eta, Messinesen egon arren Irlandako Errepublikako eta Ipar Irlandako soldaduen oroitzapena egiten baitu, etengabeko debateak egon dira funtzionamendu-gastuen inguruan.

Aqabako turismo-sektorearen garapena erresumaren liberalizazio ekonomikoarekin bat datozen finantzaketa-iturri globalei lotuta egon da (Grey, 2002), eta horrek tokiko onuradunen eta atzerritarren arteko tentsioak eragin ditu.

Lehen aipatu den moduan, ia leku guztiek egiten diete aurre finantzaketarekin zerikusia duten erronkei, eta beharbada hauxe da garrantzitsuena: nola aurkitu leku baten garapen ekonomiko eta komertzialaren eta haren izaera sakratu, solemne eta benetakoaren kontserbazioaren arteko oreka nabaria.

# **5.** Ekintza transferigarriak

Proiektuaren xedea da erabakiak hartzeko, politikak egiteko eta lekuak kudeatzeko printzipio etikoen proposamenak aurkeztea bidaia-agentzia handizkarientzat, toki-komunitateentzat eta turismoarekin eta bakearekin zerikusia duten beste agente batzuentzat. Hortaz, ikerketa-fasean jardunbide egokiak eta lekualda daitezkeen jarduketak identifikatu dira bisita-leku bakoitzean.

Hurrengo zerrendan, gaien arabera taldekatuta, ekimenak, jarduketak eta ikuspegiak zehazten dira, agenteei, erabakiak hartzeko arduradunei eta erakundeei lagunduko lieketenak bakeari buruz sentikorra den esparru batek gatazka izan duten lekuetan edukiko lukeen balioa eta egingo lukeen ekarpena azpimarratzen, bakearen finkapena hedatzeko eta turismoa garatzeko asmoz.

## **5.1.** Gatazkak izan dituzten lekuetako turismoa bakearen finkapena sustatzeko iturri gisa

- Gatazka historikoak izan dituzten lekuetan bakearen kultura sustatzeko, zeharo ezinbestekoa da lekuan gertatu zenari buruzko gogoeta- eta memoria-prozesuak egotea, bisitariari lekuan jazo ziren gertaerak ulertzen laguntzen dioten oroipen-prozesuak lantzea eta bakearen kultura aldezteko tresnak eraikitzea.
- Gomendatzen da:
    - a. Gatazka izan duten lekuetarako bisitak eta turismoak bakeari buruz sentikorrak diren ikuspegiak sustatzean betetzen duten zeregina kontuan hartzea.
    - b. Gatazka baten ondoren bakea finkatzeko prozesuen erakusgarriak diren bisita-lekuak kontuan hartzea.
    - c. Bakearen finkapena eta giza eskubideen errespetua sustatzen duten politikak eta jarduketak prestatzea eta abian jartzea horrelako lekuetarako bisitetan.
    - d. Aitortzea gatazka izan duten lekuetako oroipena demokrazia eraikitzeko estrategia zabalagoetan eta gatazkaren osteko estrategietan txertatu behar dela[5].
- Gatazka historikoko leku baten bisitariaren helburu nagusia esperientzia bat bizitzea da. Tokian bertako ikaskuntzak, egitateak gertatu ziren lekuan egoteak, bisitariari lekuarekiko lotura emozionalak sortzea eta izatea ahalbidetzen dio, eta horrek, bestalde, ikaskuntza sakonagoa eta iraunkorragoa izan dadin lagundu dezake.
- Antzinako gatazka-lekuetan (kartzelak, atxiloketa-zentro klandestinoak, deuseztatze-esparruak, etab.) toki-museoak sortuz, lekuetarako bisita baliotsuagoa eta interesgarriagoa izan daiteke eta, gainera, mota horretako ondarea bakearen kultura sustatzeko tresna izan daiteke.

## **5.2.** Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia eta garapen iraunkorra

- Gatazka izan duten mundu osoko lekuetako egungo esperientziek frogatzen dute ezen, leku horietan turismo-politikei buruzko erabakiak hartzen direnean, garrantzitsua dela giza eskubideen ikuspegiari, giza eskubideen inguruko nazioarteko arauetan oinarritutakoari, jarraitzea.
- Iraganeko gatazka bat analizatzerakoan, giza eskubideetan oinarritutako ikuspuntuaz baliatuz, arduradunek, gidariek eta bidaia-agentzia handizkariek bakeari buruz sentikorra den ikuspegitik aurkez

5 Eskubide kulturalen esparruan, interesgarria litzateke errelatore bereziaren txostena (2014) ere kontuan hartzea. A/HRC/25/49. http://www.ohchr.org/EN/Issues/CulturalRights/Pages/AnnualReports.aspx

litzakete lekua eta historia, lekuarekin eta gatazkarekin zerikusia duten pertsona guztiak integratzeko asmoz. Horrela, gainera, legitimazio ideologikoa egiteko edo indarkeria tresna gisa justifikatzen duen diskurtso bat sustatzeko prozesu berriak saihestuko lirateke.

- Ikuspegi horrek gatazkan gertatutako giza eskubideen urraketetan ardazten lagunduko luke, bakea finkatzeko prozesuen bidez adiskidetzen zailak izan daitezkeen ideologietan, teorietan edo bestelako ikuspuntuetan ardaztu beharrean.
- Horretarako, ardurandunek lekuan orain egon daitezkeen desberdintasunak aintzat hartu eta aztertu, bereizkeriazko jardunbideak zuzendu eta giza eskubideak sustatu eta babestu beharko lituzkete: etorkizunari begira bakearen finkapena sustatzeko, dauden desberdintasunei eta bereizkeriei ere heldu behar zaie oroipen-prozesuetan[6].
- Gainera, gatazka eta haren ondorioak giza eskubideen ikuspegitik aurkeztea lagungarria izan daiteke bisitariak ikuskera positiboa izan dezan eta bakea finkatzeko prozesuetan eta iraganeko gatazka historikoen ikaskuntzan itxaropenari euts diezaion.

## **5.3.** Narratibak aurkezteko lana

- Gatazka izan duten lekuetan, ohikoa da egitateei eta iraganari buruzko ikuspegi desberdinak aurkitzea, eta gatazkak gizarte garaikidean egun duen ondoreari buruzko interpretazio, diskurtso eta ikuspuntu diferenteak aurki ditzakegu.
- Gatazka izan duten mundu osoko lekuetako adibideek frogatzen dute bisitariei diskurtsoak aurkezteko lan egin behar dela. Gainera, arreta jarri behar da egitateak eta giza eskubideen iraganeko urraketak aurkezten direnean testuinguru historikoa ematearen garrantzian.
- Gatazka izan duten lekuen jatorri berezia dela-eta, diskurtsoak kasuz kasu eztabaidatu eta erabaki behar dira. Hauek dira, besteak beste, mahai gainean jarri eta eztabaidatu behar diren galdera nagusiak:

    a. Zeintzuk dira lekuaren oroipena egitearen helburuak?

    b. Nori zuzenduta dago?

    c. Zein izango da haren eragina?

    d. Nork parte hartzen du diskurtsoa egiteko?

    e. Zenbait diskurtso barne hartzen ditu?

    f. Giza eskubideen ikuspegitik proposatuta dago?

- Toki-komunitateak eta nazioarteko komunitateak onartzen duten diskurtso bat, giza eskubideen ikuspegian oinarritzen dena eta bisitariekin bat datorrena, aurkezteko, garrantzitsua da honako hau kontuan izatea:

    a. Jakintza zientifikoa eta osotasuna erabakiak hartzean: historiak gatazka izan duen leku bat bisitatzen duen pertsonaren esperientzia aberasten du. Erabakiek eskuragarri dagoen jakintza onenean oinarritu eta jakintza hori orientabidetzat hartu behar dute, eta, horretarako, gatazkari eta haren ondorioei buruzko ikerketa sustatu behar da, diziplina arteko eta diziplinaz haraindiko jakintza barne. Estandar zorrotzenak bete behar dira ikerketaren osotasunari dagokionez, inpartziala, zehatza, zintzoa eta gardena izan dadin.

    b. Toki-komunitateen partaidetza, baita egon daitezkeen biktimena ere: beharrezkoa da agintariak, herritarrak eta sozietate zibila elkarlanean aritzea, bereziki iraganeko gertakizunek zuzenean eragin zieten pertsonen ordezkariak, biktimak eta bizirik irten zirenak. Halaber, tokiko jakintza, jakintza tradizionala eta komunitateena aintzat hartu behar dira.

    c. Agenteen arteko adostasuna lortzea: agente desberdinen arteko adostasuna zaila izaten den arren, haien arteko sinergia funtsezkoa da epe luzean adiskidetzea eta bakearen finkapena sustatzeko.

6 Ikuspegi horrek garapen iraunkorreko helburuetako 16. helburua erdiesten ere laguntzen du; helburuok garapen iraunkorrerako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzeko dira: http://www.un.org/sustainabledevelopment/sustainable-development-goals/

d. Agintariek beren funtzio eta erantzukizun nagusiak onartu behar dituzte espazio publikoa kudeatzean eta lurralde osoan turismoko eta bakearen finkapeneko estrategia nazionalak garatzean.

- Gatazka izan duten lekuetan diskurtsoak egiteko, botere-harremanen ikuspuntua ere erabili behar da: ahots eta ikuspegi guztiek tokia eduki behar dute diskurtsoak egiteko prozesuan, ikuspuntuen dibertsitatea bermatzeko helburuarekin eta iraganeko gatazkaren bertsio bakarra instituzionaliza edo heda ez dadin.
- Giza eskubideen urraketak aurkezteaz gain, diskurtsoetarako lagungarria litzateke bizirik atera direnen erresilientzia aipatzea.
- Diskurtsoak egitean, baliteke toki-komunitatearentzako zailak edo luzeak diren prozesuak sortzea: giza eskubideen urraketen inguruko diskurtsoak egiteko ezinbestekoa izan daiteke biztanleak "konfort-zonatik" irtetea. Diskurtso inklusibo eta plurala egiteko, nahitaezkoa da ikuspegi guztiak barne hartzen direla bermatzen duten bitartekariak egotea eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat txertatzea.
- Zenbait lekutan, desadostasunak sor daitezke tokiko ikuspegiaren eta kanpotik lekuari buruz edukitzen den ikuspegiaren artean: nazioarteko ikuspegiak ez dira nahitaez bat etortzen toki-komunitateek iraganari eta historiari buruz daukaten ikusmoldearekin. Lekuek esanahi adierazgarri berriak sortzen dituzte gatazka baten ostean: kudeatzaileek eta agenteek leku berak dauzkan esanahi desberdinak aintzat hartu behar dituzte eta diskurtso anitz jarri behar dituzte bisitariaren esku, kanpoko memoria baten ezarpena ekiditeko. Horretarako, arretaz planifikatutako esku-hartze batzuk sustatu behar dituzte.
- Gatazka izan duten lekuen oroipena egitea lagungarria izan daiteke oraingo gai batzuk, hala nola demokrazia, giza eskubideak eta berdintasuna, hobeto ulertzeko. Bakea finkatzeko partaidetza eta giza eskubideekiko konpromisoa sustatzeak hori lortzen lagundu dezake, iraganeko egitateen eta gure gizarteko egungo erronken arteko loturak ezarriz eta aldi berean itxaropena eta etorkizunerako mekanismoak sustatuz.
- Halaber, memoria desberdinak barne hartzeko ekimenak gomendatzen dira: emakumeen memoriak, lekuari zenbait aldi historikotan emandako erabilera desberdinak, etab.

## **5.4.** Antzeko lekuen sarea: leku enblematikoen zeregina

- Zenbait lekuk irudi enblematikoa daukate eta oso ezagunak dira nazioartean: zalantzarik gabe, erakargarri turistikoak dira, baina era berean bisitariak orientatzeko funtzioa bete behar dute, lekuan eta inguruetan gertatu ziren egitateak hobetu uler ditzaten. Ikerketan aztertutako leku asko giza eskubideen iraganeko urraketei lotutako historia zabalago eta konplexuago baten zatiak ziren.
- Gomendagarria litzateke leku enblematiko edo ospetsu horiek bisitariari gatazkaren errealitatea zentzu zabalago batean ulertzen laguntzea eta beste leku batzuetarako bisita sustatzen laguntzea, adibidez, nazioartean edo tokian bertan hain ezagunak ez diren baina iragan historiko guztia hobeto ulertzeko ezinbestekoak diren lekuetarako bisita. Hori gertatzen da, esate baterako, Argentinako ESMA ohiarekin eta Hegoafrikako Robben uhartearekin, besteak beste: haien funtzio enblematikoa dela eta, gatazka historiko berberarekin zerikusia duten leku txikiagoetarako bidea zabaltzen duten "liderrak" izan beharko lukete.
- Turismo iraunkorreko estrategiak sustatzeak orobat lagunduko luke ibilbide turistikoak gatazka izan duten lekuetara dibertsifikatzen, eta horrek bisitariei zenbait leku aurkeztea ahalbidetuko luke.

## **5.5.** Lekuen kontserbazioa eta bisitaren esperientzia

- Gatazka izan duten eta badauden bisita-lekuen adibideari jarraikiz, begi-bistakoa da bisitariak esperientzia bat bizitzeko heltzen direla leku horietara. Gertaera historikoak liburu eta pelikuletan daude, baina bisitari horiek gertakariak gertatu ziren lekuan bertan ikasteko interesa adierazten dute: gatazka izan duen leku bat bisitatzen duen pertsonak leku horretan jazo ziren gertakizunekin emozionalki lotzen laguntzen dion esperientzia bat bilatzen du.

- Beraz, ezinbestekoa da alderdi emozionala eta diskurtsoaren analisi aldendua elkarrekin joatea. Zama emozionalik gabe, lekuaren eragina txikiagoa litzateke eta, iraganeko gertakizunen diskurtso zehatzik gabe, bakea finkatzeko prozesuak arriskuan jarriko lirateke.
- Leku historikoak, jatorrizko eraikinak eta paisaiak iraganeko aztarna gisa kontserbatzea funtsezkoa izan liteke lekuaren historia aurkezteko. Lekua bisitatzeko egintza fisikoak bisitaren alderdi emozionala elikatuko luke eta, aldi berean, esperientzia aberasgarriago bat biziko litzateke; horrek bakea finkatzeko prozesua esanguratsuagoa izatea ahalbidetuko luke. Gune horiek leku enblematiko bihurtzen direnez, ondarea kontserbatzea leku horietarako oinarrizko ildoa izan liteke.
- Oraingo eta etorkizuneko pertsona orok esperientzia hori bizitzeko aukera duela bermatzeko, erabakigarria da iraganean jazo ziren gertakizunen lekuko fisikoak izan daitezkeen bisita-tokien, toki historikoen eta paisaia kulturalen kontserbazioa aintzat hartzea. Ondare-kudeatzaileen, kontserbatzaileen eta bake-prozesuen sustatzaileen talde-lana funtsezkoa da mota horretako lekuetan.
- Halaber, arreta berezia jarri behar da ondare ukiezinean, mundu osoko komunitateetan ohikoa baita, ondare hori garrantzitsua izan daitekeelako toki-nortasunentzat orobat. Mota horretako ondareak gatazka baten ondorioz garatzen jarraitzeko dituen beharrak kontuan izan behar dira.

## **5.6.** Iraganeko gatazkak ukitutako pertsonen eta biktimen partaidetza eta toki-komunitateen zeregina

- Gatazka izan duen leku baten diskurtsoa egiteko, leku horretako giza eskubideen urraketan jarri ohi da arreta. Hala ere, garrantzitsua da bisitariari giza eskubideen urraketaren inguruko informazioa ez ezik bizirik atera zirenen erresilientzia ere aurkeztea.
- Diskurtsoak analizatzean azpimarratu den moduan, ezinbestekoa da toki-komunitatearen eta herritarren partaidetza bermatzea, bereziki iraganeko gatazkak eragin dienen (biktimen eta senideen) partaidetza.
- Sozietate zibilaren partaidetza fase guztietan sustatu behar da, baita erabakiak hartzeko prozesuan eta lekuaren kudeaketan ere.
- Toki-komunitateek edo gatazkak ukitutako pertsonek lekurako sarbidea izatea sustatu behar da. Neurri batzuk, hala nola pertsona ororentzako doako sarrera edo tokikoentzako deskontu bereziak, lagungarriak izan litezke komunitateak lekuaren kudeaketan eta kontserbazioan nahasita senti daitezen.
- Generoarekin zerikusia duten kontuak aintzat hartu behar dira, genero-berdintasuna sustatuz eta emakumeen partaidetza eta gaikuntza bultzatuz lekuetako edozein turismo-estrategiatan[7].
- Agintariek talde kalteberak ere aintzat hartu behar dituzte, partaidetza-prozesuetan sartzen direla bermatzeko: gizarte-talde guztiak sartzeak giza eskubideetan oinarritutako ikuspuntua bermatzen du, iraganerako begirada orainerako begiradari lotzen duena.
- Giza eskubideak urratu diren lekuek etengabeko ondore emozionala daukate antzinako biktimengan eta senideengan, eta talde horiek lekuekiko lotura berezia dute. Lekuek jendearentzat oro har irisgarriak izan behar duten arren, espazioak asmatzerakoan arreta jarri beharko litzateke gatazkak eta giza eskubideen urraketek zuzenean eragin zieten pertsonentzako zona zehatzak gordetzearen balioan. Garrantzitsua da bizikidetza-espazioak txertatzea eta bermatzea antzinako biktimak lekuarekin zenbait modu zehatzetan erlazionatu ahal izatea, gizarte garaikideetan kohesioa areagotzeko asmoz. Leku batzuk kasu-azterketa egokiak dira jakiteko zer lor daitekeen benetako espazio historikoak komunitateen arteko topaketak errazteko erabiliz.

## **5.7.** Turismo iraunkorra

- Etorkizuneko belaunaldiek ere leku horiek bisitatzearen onurez gozatu ahal izan dezaten, garrantzitsua da zenbait agentek turismo iraunkorra sustatzea, oraingo eta etorkizuneko ingurumen-, gizarte- eta eko-

7 http://ethics.unwto.org/content/gender-and-tourism

nomia-eraginak aintzat hartzen dituena, bisitarien, sektorearen, ingurumenaren eta harrera-komunitateen beharrei helduz[8].

- Turismo iraunkorreko estrategiei jarraitzen bazaie, sozietate zibilari ere kontsulta egin beharko litzaioke, turismo-jardueran parte har bailezake, guztiz nahasteko eta adostasunak erdiesteko[9].
- Toki-kudeaketako turismo-zerbitzuak bultzatzea eta, aldi berean, bisita-lekuetan gastua sustatzea toki -komunitateei mesede egiteko: beti izaten da garrantzitsua toki-komunitateek parte hartzea eta turismo-sektoreari eta ondareari etekina ateratzea, baina are inportanteagoa izaten da gatazka izan duten lekuetan, nortasun- eta bizikidetza-arazo sakonak oraindik nabarmenak baitira gizarte askotan.

## **5.8.** Bisitarien eta turisten zeregina

- Lekualda daitezkeen jarduketa horietarako, bisitari guztiak hartzen dira aintzat, bai turistak bai txangozaleak. Eskuarki, turista esaten zaio bere ohiko ingurunetik kanpo dagoen helmuga batera bidaiatzen duen eta han gaua ematen duen pertsonari. Txangolaria bere ohiko ingurunetik kanpo gaua eman gabe bidaiatzen duen pertsonari lotzen zaio gehiago[10].
- Gatazka izan duten lekuetan, toki-komunitateen eta turista atzerritarren artean distantzia egon liteke lekuei buruzko jakintzari eta pertzepzioari dagokienez. Hori erabakiak hartzean kontuan izan beharko litzateke bisitarien inguruko estrategia bat diseinatzeko eta aurretiko jakintza-maila desberdinak barne hartzen dituzten diskurtsoak aurkezteko.
- Leku askok bisita gidatuen eta bestelako bisiten askotariko eskaintza daukate. Espazioa gidaririk gabe bisitatzen duten bisitariei dagokienez, erreferentziako pertsona batek bisitan galderei edo jakin-nahiei erantzuten lagundu ahalko lieke.
- Turismoari lotutako beste leku batzuetan gertatzen den moduan, bisitariek eta turistek toki-komunitateentzako eta haien bizimoduetarako edozein kalte saihestu eta txikiagotu behar dute, eta horrek beren bisita-esperientzian errespetatu beharko luketen irizpidea izan beharko luke.
- Gatazka izan duten lekuetako giza eskubideen urraketak eta giza sufrimendua kontuan hartuta, leku batzuetan bisitatzeko adina gomendatu beharko litzateke. Mundu osoko zenbait adibidek sarrera debekatzen diete 12 edo 14 urtetik beherakoei, emandako informazioaren zati baten larritasuna dela eta. Bestalde, leku batzuek eraginak etorkizuneko genozidio bat “saihesteko” izan dezakeen balioa azpimarratzeko aukera egiten dute.
- Gomendatzen da gogoeta sakona egitea belaunaldi berriei giza eskubideen urraketaren inguruko informazioa emateko moduari buruz, bakea eraikitzen eta gerra estrategia posible gisa ez ikusten laguntzen duten balioetan ardazteko helburuarekin.

## **5.9.** Kontzientziazioa, kultura-jarduerak eta komunikazioa

- Gatazka izan duten lekuetako jardunbide egokien egungo adibideek frogatzen dute garrantzitsua dela tokiotan programa pedagogikoak sustatzea: jarduera hezigarrien xedeak iraganeko gertakizunei buruzko pentsamendu kritikoa sustatzea eta historia ikastea izan beharko luke, bisitariaren esperientzia aberasteko.
- Garrantzitsua izan daiteke epe luzeko hezkuntza-prozesuak sustatzea, jakintza sakonagoa eta iraunkorragoa bereganatzeko, esperientzia hezigarria lekurako bisitaren iraupenera mugatu ez dadin.
- Gidariak bisitarien eta lekuaren eta haren garrantzi historikoaren arteko lotunea izan ohi dira. Beraz, gomendagarria da gatazka izan duten lekuetako gidariek trebakuntza zehatza eta bakeari buruz sentikorra den prestakuntza jasotzea, bakearen sustatzaile izateko gaitasuna garatze aldera.

8 http://sdt.unwto.org/content/about-us-5

9 http://sdt.unwto.org/content/about-us-5

10 http://cf.cdn.unwto.org/sites/all/files/pdf/a22_16_approval_or_adoption_of_the_convention_on_tourism_ethics_rev.2_en.pdf

- Hezkuntza-sistema formala eta irakasleak xede dituzten ekimen zehatzek informazioa ematen eta ikasleen artean kontzientziazioa sustatzen laguntze dute tokian, nazioan eta nazioartean.
- Aldi berean, ikuspegi globala aplikatu beharko litzateke, historiaren ikerketa, lekuaren kontserbazioa, hezkuntza-programak, turismo-zerbitzuak eta komunikazio-politikak barne hartzen dituena. Gainera, kontuan hartu beharko litzateke elementu horiek guztiak beharrezkoak direla gatazka izan duen leku baterako.
- Leku horietan bakea finkatzeko prozesuak sustatzea ez dago bakarrik giza eskubideen urraketak gertatu ziren lekua bisitatzeari lotuta: lekuetako kultura-jarduerek eta kultura-adierazpenek komunitatearen zati zabalagoa integratzen eta bisitariak lekuarekin areago nahasten laguntzen dute eta, aldi berean, bakeari buruz sentikorrak diren jarduerak bultzatzen dituzte. Kultura-jarduerek askotarikoak izan eta publiko eta adin desberdinetara egokituta egon beharko lukete.
- Lekuetako arduradunek bisitarien eta gainerako interesdunen esku (lineako bisitariak eta ikertzaileak barne) jarri beharko liratekeen komunikazio-esteka zehatzak sustatu behar dituzte.
- Lekuko diskurtsoak eta erakusketa osa litzaketen alderdi sentikorrak kontuan hartuta, hizkuntzaren eta irudien erabilera egokiari eutsi behar zaio komunikazio guztietan.
- Komunikabideak eta kazetariak ere agente aktiboak izan litezke historia faltsutzen duten ideiak eta diskurtsoak deuseztatzerakoan eta bakea finkatzeko helburuak lortzen laguntzerakoan.

## **5.10.** Eragileen arteko lankidetza, sektore publikoa, sektore pribatua eta nazioarteko komunitatea barne

- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak lekuan jende gehiagok parte hartzearen eta adostasuna lortzearen alde egin dezake. Administrazio publikoek eta sozietate zibileko elkarteek osaturiko organo gidariak, finantzaketa-emaileak laguntza publikoarekin batera, turismo-sektoreko agenteen integrazioa eta beste estrategia batzuk jardunbide egokitzat jotzen dira zenbait lekutan.
- Bidaia-agentzia handizkariek bakearen finkapenaren agente posible gisa betetzen duten zeregin zehatza aintzat hartu behar da, lekuaren kudeaketaren zenbait fasetan sartuz.
- Nazioarteko lankidetzak eta lekua nazioarteko programetan txertatzeak (UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrenda edo Munduko Memoria programa, besteak beste) azpimarratzen dute interesgarria dela lekua nazioarteko estandarren arabera kontserbatzea, eta mugez haraindiko jakintza sustatzen dute.
- Halaber, gatazka izan duten lekuen arteko nazioko eta nazioarteko lankidetza gomendatzen da, jardunbide egokiak partekatzeko eta laguntza eta lankidetza-ekimenak bultzatzeko.
- Beste hezkuntza-, turismo- eta ondare-erakunde batzuekiko baterako ekimenek ere lekuei buruzko jakintza eta ulermena areagotu litzakete.

# **6.** Printzipio etikoen proposamena

Munduko Turismo Erakundearen (MTE) ardatz nagusia da turismoak ongia sustatzeko gaitasuna duelako eta zerbait baliotsu sortzen lagundu dezakeelako sinesmena. Funtsezko printzipio horrek turismo-garapenerako testuingurua ematen du eta Turismoaren Kode Etikoaren osagai nagusia da. Era berean, museo -jardunbiderako esparru etikoa Museoen Nazioarteko Koalizioaren (ICOM) lanaren muina da. Koalizioak 1986an landu zituen bere printzipio etikoak.

Ikerketa-proiektu honetatik sortzen diren printzipio etikoak, azterlanaren ondorioetan ez ezik, Museoen Nazioarteko Batzordearen Kode Etikoan eta MTEk egindako Turismoaren Kode Etikoan ere oinarritzen dira.

**1. Turismo-ekimenen helburuak honako hau izan behar du: leku jakin batean irudikatzen eta gogoratzen ari den gatazkak ukitutako pertsona guztien diskurtsoa eta esperientziak gordetzea, interpretatzea eta sustatzea.**

Turismo-jardunbideek[11] gure mundu globalaren iraganeko gatazken memoriak eta esperientziak gordetzen laguntzeko erantzukizun etikoa daukate. Iragana gogoratu egin behar da, ez errepikatzeko itxaropenarekin. Indarkeria eta gerra direla medio isildutako edo desagertutako ahotsak aitortu eta gorde egin behar dira. Gatazkaren memoriak, mingarriak izan arren, bakeari buruz sentikorra den moduan dokumentatu behar dira. Printzipio horrek bakea finkatzeko jardunbideen alde egingo du.

**2. Historiek eta ondare-lekuek gatazkak ukitutako komunitateenak izan behar dute. Tokiko agenteen gaikuntzak izan behar du interes-lekuak turistentzat kontatzeko, interpretatzeko eta merkaturatzeko lanaren muin nagusia.**

Turistei diskurtsoak aurkezteko modua gatazkak eragin dien pertsonekin eta gatazka gertatu den ondare -lekuetatik hurbil bizi diren pertsonekin batera garatu behar da. Kidetasun- eta partaidetza-sena funtsezkoa da bakearen finkapenaren eta garapen iraunkorraren oinarriak finkatzeko. Printzipio hori ICOMen 5. printzipioan islatzen da; horren arabera, museoek “haien bildumak datozen komunitateekin eta zerbitzuak ematen dizkieten komunitateekin elkarlan estuan aritu” beharko lukete.

**3. Gatazka-lekuetako turismo-ekimenek ondare zaila aztertzeko, ulertzeko eta zalantzan jartzeko aukerak eman behar dituzte.**

Batzuetan, iragan zailei edo polemikoei heltzea zeregin izugarria izan daiteke gatazka gertatu den ondare -lekuentzat. Leku horiek[12] lan egin behar dute kontzientziatzeko eta ahots eta esperientzia anitz entzunak izan daitezen aukerak emateko. Hori ICOMen 4. printzipioan islatzen da; horren arabera, museoek “kultura-eta natura-ondarea balioetsi, ulertu eta kudeatzeko aukerak eman” beharko lituzkete. Halaber, MTEren 1. artikuluarekin erlazionatuta dago; izan ere, horrek adierazten du turismoak “gizakien eta gizarteen arteko ulermenari eta errespetuari” lagundu behar diela.

**4. Gatazka-lekuetako ondarearen gaineko turismo-ekimenek ezaugarri hauek izan beharko lituzkete: iraunkorrak izan eta kasuan kasuko lekuaren edo bildumaren osotasuna gorde.**

Turismo-ekimenek komunitateen eta dauden inguruneen garapen iraunkorrari laguntzeko erantzukizun etikoa daukate eta ez dute lekuak inola ere arriskuan jarri behar. Turista ugari erakartzen dituzten gatazka-leku enblematikoek lekua zaintzeko zeregina dute eta lekuaren eta gordetzen dituzten bildumen edo objektuen osotasuna gordetzeko lan egin. Printzipio hori MTEren 3. artikuluan islatzen da, turismoak garapen iraunkorra aldeztu beharko lukeela iradokitzen du eta.

**5. Gatazka-lekuetako turismo-ekimenek erlazionatzen diren komunitateei zuzeneko etekina ekarri beharko liekete, ekonomiari, gizarteari edo kulturari dagokionez.**

Komunitateek sentitu beharko lukete historien eta ondare-lekuen zati bat haienak direla eta, gainera, nolabait bisita turistikoei zuzeneko etekina ateratzen dietela. Gatazka-lekuek komunitateak gatazka baino zer-

11 . “Turismo-jardunbideak” adierazpena berariaz erabiltzen da hemen printzipioa maila orokorrenean aplikatzeko aukera adierazteko.

12 Lehen aipatu den moduan, printzipioak lekuei beraiei aplika dakizkieke, ez bakarrik lekuetako kontserbatzaile zehatzei.

bait gehiago direla jakin beharko lukete eta turistak beste ondare-forma batzuk arakatzera animatu beharko lituzkete. Hori MTEren 5. artikuluan islatzen da, xedatzen baitu turismoak “xede-herrialdeentzako eta -komunitateentzako jarduera onuragarria” izan beharko lukeela.

**6. Negoziazioan oreka, zehaztasuna eta ulermena behar dira turistak gatazka-lekuetara erakartzeko komunitateen esperientziak eta egiak gutxietsi gabe. Turismo-intereseko lekuen interpretazioak eta diskurtsoak xehetasuna eta testuinguru historikoa islatu beharko lituzkete.**

Ondarea oso prozesu politizatua izan ohi da eta ideologia zehatzak hedatu eta gatazka beste baliabide batzuen bitartez mantendu ahal du. Gatazka-lekuek “bakeari buruz sentikorra” den ikuspegi bati heldu beharko liokete, banaketa murriztu beharrean areagotu dezaketen diskurtso alderdikoiak eta subjektiboak saihesten saiatzeko.

**7. Ekimenek sufrimenduaren, zaurien eta biktima-izaeraren jakitun izan beharko lukete. Funtsezkoa da turismo-lekuek memoria mingarriak errespetatzea eta biktimak eta bizirik atera direnak berriro ez traumatizatzea.**

Gatazka-lekuetako turismoaren inguruko ekimen orok gizabanako eta talde kalteberen eskubideak babestu eta gordetzeko erantzukizuna dauka (giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia onartuz), baina bereziki bertan gertatu ziren giza eskubideen urraketa larrien biktimen edota bizirik atera ziren pertsonen eta haien senideen eskubideak gordetzeko erantzukizuna. Agenteek zintzotasunez eta etikaz egin behar dute lan. Hori MTEren 6. artikuluan islatzen da, agenteen betebeharra analizatzen baitu, baita ICOMen 7. eta 8. printzipioetan ere, horren arabera museoek legezkotasunari jarraikiz eta profesionaltasunez jardun behar baitute.

**8. Gatazka gertatu den ondare-lekuek jardunbide egokiak partekatu behar dituzte eta elkarrekin lan egin, leku sentikorretan turismorako esparru etikoak garatze aldera.**

Gatazka bat gertatu den ondare-lekuen arteko lan-harreman estuagoez baliatuz, jardunbide eraginkorragoak asma daitezke. Ondo garatutako ekimenak eta aspalditik turisten eta bisitarien interesa pizten duten lekuek esperientziak partekatu beharko lituzkete garapen-prozesuan dauden lekuekin, baita ikerketa akademikoan parte hartu ere.

**9. Gatazka bati lotutako lekuak bisitatzen dituzten turistek begirunetsuak izan behar dute gatazka-lekuei lotutako sentikortasunekin.**

Gatazka-lekuak bereziki sentikorrak izan ohi dira, eta turistek horren jakitun izan beharko lukete. Haien portaerak harrera-komunitateekin begirunetsua izan beharko luke, eta ez lukete gatazka edo banaketa piztu edo larriagotzeko moduan jardun behar. Horri dagokionez, turismo-sektoreak jokabide begirunetsuak eta arduratsuak sustatuz bete dezake bere eginkizuna, hezkuntzaren bitartez. Turistek kultura, praktika eta diskurtso historiko desberdinez informatu beharko lukete leku sentikorrak bisitatu baino lehen. Hori MTEren 1. artikuluan islatzen da, elkarrenganako begirunea eta ulermena iteratiboa dela azpimarratzen baitu.

# **Eranskina I**. Erreferentziak eta bibliografia

Attia, A., El-Hady, D.A., and -Manhaly, S. (2015) 'The Role of Dark Tourism in Developing the Demand for the Egyptian Tourist Product'. *Journal of Tourism Research.* 12(1): 3-14.

Al Haija, A. (2011) 'Jordan: Tourism conflict with local communities'. *Habitat International* 35(1): 93-100.

Alluri, R., Leicher, M., and Palme, U.J. (2013) 'Understanding Economic Effects of Violent Conflicts on Tourism: Empirical reflections from Croatia, Rwanda and Sri Lanka' in C. Wohlmuther and W Wintersteiner (Eds.) *International Handbook of Tourism and Peace.* Klagenfurt/Celovec: Drava Verlag.

Barlow, D. (2016) 'Gardens of the Devil: A Report from Western Egypt'. J*ournal of Conventional Weapons Destruction*: Vol. 3: Iss.1, Article 2.

Beech, J. (2009) 'Genocide Tourism' in R. Sharpley and P. Stone (Eds.) *The Darker Side of Travel: The Theory and Practice of Dark Tourism.* Bristol: Channel View 207-223.

Bell, V., and Di Paolantonio, M. (2009) 'The Haunted Nomos: Activist-Artists and the (Im)possible Politics of Memory in Transitional Argentina'. *Cultural Politics* 5(2) 149- 178.

Benzaquen, S. (2014) 'Looking at Tuol Sleng Museum of Genocidal Crimes, on Flickr and Youtube.' Media, Culture and Society. 36(6): 790-809.

Berin, A., and Poria, Y., and Oren, G., (2011) 'Sought Experiences at (Dark) Heritage Sites'. *Annals of Tourism Research.* 38(3): 820-841.

Berin, A., and Poria, Y., and Oren, G., (2011) 'Sought Experiences at (Dark) Heritage Sites'. *Annals of Tourism Research.* 38(3): 820-841.

Björkdahl, A., and Kapplen, S. (2017), *Peacebuilding and Spatial Transformation. Peace, Space and Place*. London and New York City, NY: Routledge.

Björkdahl, A., and Mannergren, J. (2016), 'A tale of three bridges: agency and agonism in peace building'. *Third World Quarterly*. 37(2): 321-335.

Bradol, J. and A. Guibert, A (1997) 'Le temps des assassins et l'espace humanitaire, Rwanda, Kivu, 1994-1997'. *Hérodote* 86-7.

Brewer, J. (2006). 'Memory, truth and victimhood in post-trauma societies'. In G. Delanty and K. Kumar (Eds.) *The Sage Handbook of Nations and Nationalism*. pp. 214-224. London: Sage.

Brown, K. (2007) 'Our father organisation: the cult of the Somme and the unionist 'Golden Age' in modern Ulster Loyalist commemoration'. *The Round Table* 96(393): 707-23.

Bourdieu, P. (1984) *Distinction: A Social Critique on the Judgment of Taste.* London: Routeldge.

Boyd, S. (2000) 'Heritage Tourism in Northern Ireland: Opportunity Under Peace'. *Current Issues in Tourism.* 3(2): 150-74

Barahona de Pinto et al. (2001)

Cameron, C. (2008) 'From Warsaw to Mostar: the World Heritage Committee and Authenticity'. APT Bulletin 39: 2/3: 19-24.

Chandler, D. (1995) *Voices from S-21: Terror and History in Pol Pot's Secret Prison.* University of California Press.

Charlesworth, A., and Addis, M. (2002) 'Memorialization and the Ecological Landscapes of Holocaust Sites: The cases of Plaszow and Auschwitz-Birkenau'. *Landscape Research* 27(3): 229-251.

Commonwealth War Graves Commission (Undated) *El Alamein and the War in the Desert*.

Clarke, R. (2014) 'Self-presentation in a Contested City'. *Anthropology Today.* 16(5): 12-18

Corsane, G. (2006) 'Using ecomuseum indicators to evaluate the Robben Island Museum and World Heritage Site'. *Landscape Research* 31(4): 399-418.

Crang, M. (2003) 'On Display: the poetics, politics and interpretation of exhibitions' in A. Blunt, P Gruffudd, J. May, M. Ogborn, and D. Pinder (Eds). *Cultural Geography in Practice.*

D'Amore, L.J (1998) 'Tourism: A vital force for peace'. *Tourism Management.* 9(2): 151-154

Daher, R.F (2005) 'Urban Regeneration/Heritage Tourism Endeavours: The Case of Salt, Jordan 'Local Actors, International Donors, and the State'. *International Journal of Heritage Studies* 11(4): 289-308

Dann, G. and Seaton, A.V. (2001) 'Slavery, contested heritage and thanatourism'. *International Journal of Hospitality and Tourism Administration.* 3(4): 1-29

Davision, P. (1998) Museums and the reshaping of memory' in S. Nutall and C. Coetzee (eds.) *Negotiating the Past: The making of memory in South Africa.* Cape Town: Oxford University Press. Pp 143-160.

Deacon, H. (2004) 'Intangible Heritage in Conservation Management Planning: The Case of Robben Island'. *International Journal of Heritage Studies.* 10(3): 309-19

Diamond, J. (2005) *Collapse: How societies choose to fail or succeed.* New York City, NY: Viking.

Farmaki, A. (2017) 'The tourism and peace nexus'. *Tourism Management.* 59: 528-540.

Finkelstein, N. (2000) *The Holocaust Industry: Reflections on the Exploitation of Jewish Suffering.* New York City, NY: Verso.

Forde, S. (2016) 'The bridge on the Neretva: Stari Most as a stage of memory in post-conflict Mostar, Bosnia-Herzegovina'. *Cooperation and Conflict* 51(4): 467-483.

Friedrich, M., and Johnston, T. (2013) 'Beauty versus tragedy: thanatourism and the memorialisation of the 1994 Rwanda Genocide'. *Journal of Tourism and Cultural Change.* 11(4): 302-320.

Galtung, J. (1969) 'Violence, Peace and Peace Research'. *Journal of Peace Research.* 6(3): 167-191.

Graham, B., and Shirlow, P. (2002) 'The Battle of the Somme in Ulster memory and identity.' *Political Geography.* 21: 881–904.

Gray, M. (2002) 'Development Strategies and the Political Economy of Tourism in Contemporary Jordan' in G. Joffe (Ed.) *Jordan in Transition 1990-2000*. London: Hurst.

Grodach, C. (2002) 'Reconstituting identity and history in post-war Mostar, Bosnia-Herzegovina'. *City* 6(1):61-82.

Gross, A. S. (2006). 'Holocaust Tourism in Berlin: Global Memory, Trauma and the 'Negative Sublime'. *Journeys*. 7(2): 73-100.

Guyer, S. (2009) 'Rwanda's Bones'. *Boundary 2* 36:2

Hazbun, W. 'Mapping the Landscape of the "New Middle East": The Politics of Tourism Development and the Peace Process in Jordan'. In G. Joffe (Ed.) *Jordan in Transition 1990–2000* London: Hurst: 330–345.

Henderson, J. (2007) 'Communism, Heritage and Tourism in East Asia'. *International Journal of Heritage Studies.* 13(3): 240-254.

Hohenhaus, P. (2013) 'Commemorating and Commodifying the Rwandan Genoicide: memorial sites in a politically difficult context'. In L. White and E. Frew. (Eds.) *Dark Tourism and Place Identity: Managing and interpreting dark places.* Oxford and New York City, NY: Routledge: 142-155

Iles, J. (2006) 'Recalling the Ghosts of War: Performing Tourism on the Battlefields of the Western Front'. *Text and Performance Quarterly*. 26(2): 162-180.

Iles, J. (2008) 'In remembrance: The Flanders Poppy'. *Mortality* 13(3): 201-221.

Ibreck, R. (2010) 'The Politics of mourning: Survivor contributions to memorials in post-genocide Rwanda'. *Memory Studies.* 3(4): 330-343.

Joffe, G. (2002) *Jordan in Transition 1990-2000.* London: Hurst.

Jeffrey, K. (2000) *Ireland and the Great War.* Cambridge: Cambridge University Press.

Johnson, N. (2003) *Ireland, The Great War and the Geography of Remembrance.* Cambridge: Cambridge University Press.

Kavartzis, M., and Ashworth, G. (2005) 'City Branding: An Effective Assertion of Identity or a Transitory Marketing Trick?'. *Tijdschrift voor Economische en Social Geografie.* 96(5): 506-514.

King, E. (2010) 'Memory Controversies in Post-Genocide Rwanda: Implications for Peacebuilding'. *Genocide Studies and Prevention.* 5(3).

Kelly, I. (2012) 'Peace through tourism: An implementation guide'. *Journal of Tourism and Peace Research.* 2(2): 32-49.

Koopman, A. (2017) 'Peace'. *International Encyclopaedia of Geography.*

Kürsad Özlen, M., Poturak, M. (2013) 'Tourism in Bosnia and Herzegovina'. Global Business and Economics Research Journal. Vol. 2 (6): 13-25.

L. Bier, G. (2003) "The economic impact of landmines on developing countries", International Journal of Social Economics, Vol. 30 Issue: 5, pp.651-662.

Lederach, J.P. (1997) *Building peace: sustainable reconciliation in divided societies.*

Ledgerwood, J. (1997) "The Cambodian Tuol Sleng museum of genocidal crimes: National narrative." *Museum Anthropology* 21.1 (1997): 82-98.

Ledgerwood, J. (2002) 'The Cambodian Tuol Sleng Museum of Genocidal Crimes: national narrative'. In: D. Lorey, and W. Bezley (Eds.) Genocide, Collective Violence and Popular Memory: The Politics of Remembrance in the Twentieth Century. Wilmington, DE: Scholarly Resources Inc., pp. 103–23

Lennon, J. J., & Foley, M. (2000). *Dark tourism.* Cengage Learning EMEA.

Lifton, R. (1967) *Death in Life: Survivors of Hiroshima.* New York: Random House.

Lisle, D. (2004) 'Defending Voyeurism: Dark Tourism and the Problem of Global Security'. In P Burns and M. Novelli (Eds.) *Tourism and Politics: Global Frameworks and Local Realities.* London and New York City, NY: Routledge.

Lisle, D. (2005) 'Frontline leisure: Securitizing Tourism through the War on Terror'. *Security Dialogue.* 44(2): 127-146.

Lowenthal, A. (1985) 'Threat and opportunity in the Americas'. *Foreign Affairs.* 64(3): 539-61.

Lynch,M. (1999) *State Interests and Public Spheres: The International Politics of Jordan's Identity*. New York City, NY: Columbia University Press.

McDowell, S. (2008) 'Selling Conflict Heritage Through Tourism in Peacetime Northern Ireland: Transforming Conflict or Exacerbating Difference'. *International Journal of Heritage Studies.* 14(5): 405-421.

McDowell, S., and Braniff, M. (2014) *Commemoration as Conflict: Space, Memory and Identity in Peace Processes.* London: Palgrave.

Melvern, L. (2000) *A People Betrayed: The Role of the West in Rwanda's Genocide.* London: Zed.

Mouffakir, O., and Kelly, I. (2010) *Tourism, Progress and Peace.* Wallingford: CABI.

Myers, J. (2010) *Great War and Memory in Irish Culture, 1918-2010.* Academia Press.

Nordtvedt, K. (2006) 'Old Bridge in Mostar: A Bridge Between Muslims and Croats?' Institute of Islamic Studies, McGill University, Montreal.

Partee Allar, K. (2013) 'Holocaust Tourism in Europe'. in L. White and E. Frew (Eds.) *Dark Tourism and Place Identity: Managing and interpreting dark places.* Oxford and New York City, NY: Routledge: 189-203.

Pestek, A., and Nikolic, A. (2011) ‘Role of traditional food in tourist destination image building: example of the city of Mostar’. *UTMS Journal of Economics* 2 (1): 89–100.

Rasool, C. (2000) ‘The rise of heritage and the reconstitution of history in South Africa’. *Kronos: South African Histories*. 26: 1-21.

Reyntjens, F. (2004) ‘Rwanda, Ten years on: From genocide to dictatorship’. *African Affairs*103(411): 177-210.

Rhodes, R. (1995). *The making of the atomic bomb*. New York City, NY: Simon and Schuster.

Rigney, A. (2008) ‘Divided pasts: A premature memorial and the dynamics of collective remembrance’. *Memory Studies* 1(1): 89-97.

Ross, A. (2011) ‘Geographies of war and the putative peace’. *Political Geography.* 30(4): 197-199.

Salazar, N. (2006) ‘Building a ‘Culture of Peace’ through Tourism: Reflexive and Analytical Notes and Queries’. *Universitas Humanistica.*

Seaton, A. V. (1996). ‘Guided by the dark: From thanatopsis to thanatourism’. *International Journal of Heritage Studies*. 2(4): 234-244.

Seaton, A.V. (2010) ‘Thanatourism and its discontents: an appraisal of a decade’s work with some future issues and directions’ in T. Jamal and M. Robinson, M. (Eds) *The Sage Handbook of Tourism Studies*. London: Sage.

Schafer, S. (2016) ‘From Geisha girls to the Atomic Bomb Dome: Dark Tourism and the formation of Hiroshima memory’. *Tourist Studies* 16(4): 351-366.

Shackley,M. (2001) ‘Potential Futures for Robben Island: shrine, museum or theme park?’ *International Journal of Heritage Studies.* 7(4): 355-363.

Shimada, L.D. (2014) ‘Transforming ‘The Troubles’: cultural geographies of peacebuilding in Northern Ireland’. In F. McConnell, N. Megoran and and P. Williams (Eds.) *Geographies of Peace.* London: IB Tauris.

Siegenthaler, P. (2002) ‘Hiroshima and Nagasaki in Japanese Guidebooks’. *Annals of Tourism Research.* 29(4): 1111-1137.

Sion, B. (2009), ‘Conflicting Sites of Memory in Post-Genocide Cambodia’. Available at: file:///E:/Ethical%20Tourism/Site%20Documents/Tuol%20Sleng/2.1-Conflicting-Sites-of-Memory-in-Post-Genocide-Cambodia.pdf

Sodaro, A. (2011) ‘Politics of the Past: Remembering the Rwandan Genocide at the Kigali Memorial Centre’ in E. Lehrer., C. Milton., and M. Patterson (Eds.) *Curating Difficult Knowledge: violent pasts in public places*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.

Steenkamp, C. (2011) ‘In the shadows of war and peace: making sense of violence after peace accords’. *Conflict, Security and Development.* 11(3): 357-383.

Stein, L (2004) Luna Stein, ‘Political Tourism in Palestine: Book Review’, at http://www.stanford.edu/group/SHR/5-1/text/lstein.html

Stone, P. R. (2012). ‘Dark tourism and significant other death: Towards a model of mortality mediation’. *Annals of tourism research* 39(3): 1565-1587.

Stone, P. R. (2006). ‘A dark tourism spectrum: Towards a typology of death and macabre related tourist sites, attractions and exhibitions’. *Turizam: znanstveno-stručni časopis*. *54*(2): 145-160

Stone, P., & Sharpley, R. (2008). ‘Consuming dark tourism: A thanatological perspective. *Annals of Tourism Research*, *35*(2): 574-595.

Strange, C., and Kempa, M. (2003) ‘Shades of Dark Tourism: Alcatraz and Robben Island’. *Annals of Tourism Research.* 30(2): 386–405.

Tajdo, V. (2010) ‘Genocide: the changing memory landscape in Kigali’. *African identities*, Special Issue: *The Rwandan Genocide - A Critical Re-Evaluation* 8(4): 379-388

Tarlow, P. E. (2007). Dark tourism: The Appealing side of Dark Tourism and More'. In M. Novelli (Ed.) *Niche tourism: Contemporary Issues, Trends and Cases*. Oxford: Butterworth Heinemann 47-58.

Tonner, S. L. (2008). 'How has grief tourism re-defined the social and judicial progress of the Madres de Plaza de Mayo?' (Unpublished Doctoral dissertation, Texas A&M University).

Tumarkin, M. (2005) *Traumascapes: The Power and fate of places transformed by tragedy.* Carlton: Melbourne University Press.

Tunnbridge, J.E., and Ashworth, G.J. (1996) *Dissonant Heritage: The management of the past as a resource in conflict.* Chichester: Wiley.

Tyner, J., Sirik, S., and Henkin, S. (2014) 'Violence and the dialectics of landscape: memorialisation in Cambodia'. *Geographical Review* 104(3): 277-293.

UNDP (2016) *UNDP Mine Action Programming: Egypt* Available online at: http://www.mineaction.org/sites/default/files/documents/UNDP%20Egypt%20One-Pager%20FEB2016-%20Updated.pdf

UNESCO (2011) *Report on the Mission to Robben Island.*

UNESCO – World Heritage List. http://whc.unesco.org/en/list/

UNESCO – Memory of the World Programme. https://en.unesco.org/programme/mow

Vanolo, A. (2008) 'The image of the creative city: Some reflections on urban branding in Turin'. *Cities* 25: 370-382.

Viggiani, E. (2014) *Talking Stones: the politics of memorialization in post-conflict Northern Ireland*.

Whigham, K. 2014) 'Filling the Absence: the re-embodiment of sites of mass atrocity and the practices they generate'. *Museum and Society* 12(2): 88-103.

Williams, P. (2015) *Everyday Peace: Politics, Citizenship and Muslim Lives in India.* Malden, MA: John Wiley.

Williams, P. (2004) 'Witnessing Genocide: Vigilance and Remembrance at Tuol Sleng and Choeung Ek'. *Holocaust and Genocide Studies* 18(2): 234-254.

Winter, T. (2008) 'Post-conflict Heritage and Tourism in Cambodia: The Burden of Angkor'. *International Journal of Heritage Studies* 14(6): 524-539.

Wohlmuther and Wintersteiner (Eds.), *International Handbook on Tourism and Peace*, Centre for Peace Research and Peace Education of the Klagenfurt University/Austria and UNWTO, Drava, 2013: 17-19.

Yoshida, K., Bui, H.T., and Lee, J. (2016) 'Does Tourism illuminate the darkness of Hiroshima and Nagasaki?'. *Journal of Destination Marketing and Management.* 5: 333-340.

# **Eranskina II**. Proiektuko partaide eta ikertzaileak

**Proiektuaren lidergoa**

-Turismoko Munduko Erakundea (OMT – Nazio Batuak)

-Flandriako Gobernua (Kanpo harremanen bulegoa)

**Babestzaileen taldea**

-Flandriako Gobernua (Kanpo harremanen bulegoa)

-Eusko Jaurlaritza (Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia)

-Ipar Irlandako Gobernua

**Ikerketa taldea**

-EHUko Paisai Kulturalak eta Ondarea UNESCO Katedra –(www.catedraunesco.eu). Ikertzailea: Maider Maraña

-Ulster University (www.ulster.ac.uk). Ikertzaileak: Marie Braniff, Peter Doak eta Sarah McDowell

# **Eranskina III**. Esker onak

Txosten hau pertsona eta erakunde askoren babesari eta parte hartzeari esker egin zen. Proiektuaren une desberdinetan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu.

La información del informe no necesariamente refleja los puntos de vista e ideas de informantes y participantes. Por lo tanto, las ideas contenidas en este informe no comprometen de ninguna manera a las personas entrevistadas y solo reflejan las conclusiones de los investigadores.

Txosteneko informazioa ez du zertan islatu informatzaile eta parte-hartzaileen iritziak eta ideiak. Beraz, txosten honetan jasotako ideiek ez dute inola ere elkarrizketatuak konprometitzen, eta ikertzaileen ondorioak soilik islatzen dituzte.

**1. Hiroshima Bake Memoriala (Japonia)**

Hiroshima Peace Memorial Museum (Rie Nakanasghi, Kuratorea)

Nagasaki Atomic Bomb Museum (Fumitada Hasi, Zuzendariordea)

**2. Tuol-Sleng Genozidioaren Museoa (Cambodia)**

Sleuk Rith Institute (Savina Sirik, Zuzendariordea)

Tuol Sleng Genocide Museum

UNESCO bulegoa, Phnom Penh (Hoklim Bun)

**3. Stari Most –Mostar Zubi Zaharraren eremua (Bosnia eta Herzegovina)**

“Stari grad” Agentzia (Miralem Fajic – zuzendaria; Dragi Pavlovic)

Oficina UNESCO en Sarajevo (Sinisa Sesum, Jefe de oficina)

Milijana Okilj; Azra Hadzic

**4. Auschwitz-Birkenau (Polonia).**

Auschwitz-Birkenau State Museum (Pawel Sawicki, Prentsa; Dorota Kuczyńska; Prentsa)

Galacia Jewish Museum

**5. Irlandako Bakearen Uhartearen Parkea (Messines, Belgika, Flandria).**

International School for Peace Studies (Glenn Barr)

Jackie Barr

Somme Association/Somme Museum (Carol Walker, zuzendaria)

**6. Robben irla (Hegoafrika)**

Robben Island Museum (Yolanda Mdutyana)

District 6 Museum (Mandy Sanger)

Chrischene Julius, Bildumak, Ikerketa eta Dokumentazio Saila

**7. Genozidio gogoratzeko Zentroa Kigalin (Ruanda).**

Genozidio gogoratzeko Zentroa

Aegis Trust

**8. Museo Sitio de Memoria ESMA eta Espacio Memoria y Derechos Humanos (Argentina).**

Museo Sitio de Memoria ESMA (Alejandra Naftal – zuzendaria; Sebastian Schonfeld, Maria Rosenfeldt, Andrés Vinocur, María José Kahn, Celeste Orozco, museoko langileen taldea).

Giza eskubideen elkarteak: Abuelas de Plaza de Mayo – Casa por la Identidad: Paula Sansone; Centro de Estudios Legales y Sociales (CELS) eta Memoria Abierta: Valeria Barbuto; Familiares de Desaparecidos y Detenidos por Razones Políticas: Graciela Lois.

Ministerio de Justicia - Secretaría de Derechos Humanos y Pluralismo Cultural (Claudio Avruj – Secretario de Estado; Gustavo Peters, Sergio Kuchevazky, Ariel Gomplewicz - Archivo Nacional de la Memoria; Laura Duguine – Ex-CCDTyE “Club Atlético” koordinatzailea)

**9. Alamein Memorial (Egipto).**

Commonwealth War Graves Commission (Konstantinos Alexandropolous)

**10. Aqaba Fort (Jordania).**

Giorgia Cesaro (UNESCO bulegoa Amanen)